

'Karmele'

Asier Altunaren filmean parte hartu dute Ganbara abesbatzako zenbait kidek. Soinu bandan ez ezik, aktore lanetan ere parte hartu dute.

Urriaren 24tik 27ra ikusi ahal izango da Oñatin.



Partaidetzazko Aurrekontuak

'Euskaldun fededun'



Herritarrek egindako proposamenak lehenesteko bi saio egingo dira urriaren 14an eta 22an, herritar guztiei irekiak



Pruden Gartziaren hitzaldiak emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren ikasturte berriari

OÑATIKO ESPERIENTZIEN GELA



Pruden Gartzia Isasti (Oñati, 1964)



Emilio Cerdá Tena (Benicarló -Castellón-, 1954)

'Euskaldun fededun'

Euskal Herriaren identitateari buruz, Pruden Gartzia oñatiarrak urriaren 15ean emango duen hitzaldiak emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren kurtso berriari

Urriaren 29an, **Valentziako Dana** izango du hizpide Emilio Cerdák, 200dik gora hildako eragin zituen hondamendiaren urteurrena betetzen den egun berean

Aurten ere oñatiar batek emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren ikasturte berriari. Oraingo honetan Pruden Gartzia (Oñati, 1964) izango da hizlaria. Filosofia eta Letretan doktorea, Oñatiko udal liburutegiko zuzendaria izan zen hainbat urtez, eta gaur egun Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka zuzentzen du. Euskaltzain urgazlea ere bada eta hainbat saiakera liburu idatzi ditu. Azkena, 'Euskaldun fededun' (Elkar, 2024) izenburua duena, eta horixe da, hain zuzen, urriaren 15ean Santa Ana antzokian, arratsaldeko 18:30etan emango duen

hitzaldian hizpide izango duen gaia.

"*Euskaldun fededun*, garai batean Euskal Herria deskribatzeko erabiltzen zen esaera ezaguna da, eta askotan pentsatu izan da, hori hala izan dela beti, baina hori sinplekeria hutsa da, bistan denez", azaldu digu Gartzia. "Nire argudio bidea da, esaera hori Euskal Herriaren historiaren garai konkretu bati dagokiola, gutxi gora behera 1800. urtean hasten dena, eta 1960 inguruan amaitzen. Garai hori deskribatzeko egokia da esaera hori, baina aurrekoa eta ondorengoa ez. Gaur egun, adibidez, be-

gi-bistakoa da euskaldunen artean fededun gutxi dagoela, eta gazteen artean are gutxiago".

ELIZA KATOLIKOAREN HEGEMONIA

Aipatutako garai historiko horretan, 1800-1960, ia bi mende luzez, Eliza katolikoaren eta fede katolikoaren hegemonia ia erabateko bat egon zen Euskal Herri osoan, zazpi herrialdeetan eta maila guztietan, eta Gartzia aztertu nahi izan du nagusitasun horrek gure identitate nazionalarekin daukan lotura. "Harri-garria da, erlijio katolikoak gure herrian azken bi men-


deetan izan duen goitik beherako hegemonia kontutan izanik, gaur egun ia ia desagertzera iritsi izana. Oso fenomeno historiko deigarria da, Euskal Herrian gertatu dena, eta geure begiekin ikusi duguna".

Frantziako Iraultzaz eta, bereziki, Euskal Herrian izan zuen eraginari buruz ere mintzatuko da Gartzia. "Bai, normalean ez da horretaz hitz egiten; ematen du euskaldunok bizi izan garela mundutik aparte, ardiak zaintzen Urbian, eta hori ez da horrela, baina kosta egiten zaigu esatea. Frantziako Iraultza gertakari oso inportantea izan zen Euro-



la bi mendetan zehar,
1800etik 1960ra,
gutxi gora behera, Eliza
katolikoaren hegemonia
handi bat egon zen
Euskal Herri osoan,
eta horrek gure
nortasun nazionalarekin
daukan lotura aztertu
nahi izan dut

> PRUDEN GARTZIA



'Euskaldun fededun' (Elkar,
2024) liburuaren azala

pan, eta Euskal Herrian ere
izan zituen bere ondorioak,
noski".

Hitzaldi dibulgatzailea
izango dela aurreratu digu.
"Ez da beharrezkoa gauza
handirik jakitea nik esango
dudana ulertzeko, baina,
jakina, hitzaldira joango
denak interesen bat eduki

behar du Euskal Herriaren
historiarekin, gure kultura
zein hizkuntzarekin".

"Uste dut" gaineratu du,
"beharrezkoa dela gure his-
toriaz hausnartzea, betiko
lau topikoetan geratu gabe,
ignorantziaren goramena
baita hori, tamalez gaur
egun oso modan dagoena".

VALENTZIAKO 'DANA' AZTERGAI HONDAMENDIAREN URTEURRENEAN

Oñatiko Esperientzien Gelaren baitan antolatu den bigarren
hitzaldiak ere ikusmin handia piztuko du, ziur. Matematikan
doktorea eta Madilgo Universidad Complutenseko Análisi
Ekonomikorako katedradun emeritua den Emilio Cerdá
Tena (Benicarló, 1954) izango da hizlaria, eta ia zko urrian
Valentzian 200dik gora hildako eragin zituen DANA edo
tanta hotz ikaragarria izango du hizpide, hondamendiaren
urteurrena beteko den egun berean, urriaren 29an, Santa
Ana aretoan, goizeko 10:00etan.

Valentziako DANA diziplina ezberdinetatik aztertua iza-
ten ari da (meteorologia, klimatologia, hidrologia, historia,
ingeniaritza, geografia, hezkuntza, ekonomia...), eta hitzaldi
honetan ikuspegi desberdinek eskaintzen dizkiguten azal-
pen eta irakaspen nagusien sintesia aurkeztuko ditu Cerdá
jaunak, faktore meteorologiko, hidrologiko eta ekonomikoak
ardatz hartuta, giza faktorea ahaztu gabe.

Oñatiko Esperientzien Gela

JAKIN BEHARAREKOAK

► 2022ko urrian jarri zen abian Oñatiko Esperientzien
Gela, **udaleko Hezkuntza sailak** eta **Goienagusi**
elkartek sinatutako lankidetzak hitzarmenari esker.

► Goienagusi elkarteak Debagoiena eskualdean jarduten
duen irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da, eta
55 urtetik gorako herritar guztiei zuzenduta dago.
Ezagutza esparruak zabaldu, kultura maila aberastu,
aisialdiaz gozatu, harreman berriak sortu eta gizarte
gaiekiko jarrera aktiboa sustatzea du helburu, eta,
horretarako, hainbat ekintza (hitzaldiak, tailerrak,
mendi ibilaldiak, kultur irteerak, bidaiak...) antolatzen
ditu. Arrasaten astelehenero egoten dira hitzaldiak,
eta Bergaran eta Oñatin hamabostero, txandaka,
asteazkenetan.

► Oñatiko udalak eta Goienagusik sinatutako
hitzarmenaren arabera, Goienagusi elkarteak
hamabostean behin hitzaldi edo bestelako ekitaldiren
bat antolatuko Oñatin, eta hitzaldi horiek irekiak eta
dohainik izango dira oñatiar guztientzat. Oñatiko
hitzaldiak asteazken goizetan (10:00) izaten dira, Santa
Ana aretoan, eta ordu erdi lehenago kafea hartzeko
aukera egoten da bertan, udalari esker, herritarren
arteko hartu-emanak sustatu eta bideratzeko asmoz.
(Salbuespen moduan, kurtsoko lehen hitzaldia, Pruden
Gartziarena, arratsaldeko 18:30etan izango da).

► Goienagusik Arrasaten eta Bergaran antolatzen
dituen gainerako hitzaldi eta ekintzetan parte hartzeko
elkarteko bazkide izan behar da, 40 euroko urteko
kuota ordainduta.

► Gaur egun 308 bazkide ditu Goienagusik, eta
horietatik ia 60 oñatiarrak dira. Elkarteko lehendakaria
bera ere oñatiarra da momentu honetan. Elkarteari
buruzko informazioa eta bazkide egiteko dokumentua
ere www.goienagusi.eus webgunean ikus daiteke.

(Hurrengo orrira)



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...





DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHiago

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 Oñati - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

GOIENAGUSI DATOZEN EKITALDIAK

• **HITZALDIA:** 'Polimedikazioa ulertzen: botiken erabilera zentzuduna'.

Hizlaria: Nerea Jauregizar, Farmazilaria
Urriak 6 - Arrasateko kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'La actuación de los Juzgados de Violencia sobre la Mujer: aspectos principales en el ámbito penal y civil'.

Hizlaria: Ane Fadrique, Magistratua
Urriak 8 - Bergarako Seminarixoa (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Qué te apetece comer hoy?' Hizlaria: Nora Alonso, biologoa
Urriak 13 - Arrasateko kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Euskaldun fededun' Hizlaria: Pruden Gartzia, Historialaria
Urriak 15 - Oñatiko Santa Anan (18:30)

• **HITZALDIA:** '25 urte Debagoienetik komunikatzen'. Hizlaria: Iban Arantzabal, Goienako zuzendaria
Urriak 20 - Arrasateko kulturaten (10:00)

• **BISITA:** 'Goiena komunikazio taldea'.
Urriak 21 - Arrasate (10:00)

• **HITZALDIA:** 'La conquista de los polos. Fin de la era de los exploradores'. Hizlaria: Javier Sanchez-Beaskoetxea, Itsas-pilotua eta kazetaria
Urriak 22 - Bergarako Seminarixoa (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Gureak enpresa taldea: 50. urteurrena'. Hizlaria: Aizpea Barros
Urriak 27 - Arrasateko kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'La DANA de Valencia de 2024, desde una perspectiva multidisciplinar'. Hizlaria: Emilio Cerdá.
Urriak 29 - Oñatiko Santa Anan (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Palestina eta Israelen gatazkaren jatorria' Hizlaria: Markel Elortza, Historialaria
Azaroak 10 - Arrasateko Kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Turismoa eta lekuko nortasuna: aukerak eta arriskuak ikuspegi global batetik'. Hizlaria: Aurkene Alzua, Turismoan aditua
Azaroak 24 - Arrasateko Kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Gure inguruko kobazuloak'. Hizlaria: Santi Ugarte eta Iñaki Leizeaga
Azaroak 26 - Bergarako Seminarixoa (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Europa en la encrucijada'. Hizlaria: Juanjo Alvarez
Azaroak 24 - Arrasateko Kulturaten (10:00)

• **HITZALDIA:** 'Neuroteknologiak: giza garuna ulertzeko eta konpontzeko bidean'. Hizlaria: Aitzol Garcia-Etxarri
Abenduak 10 - Bergarako Seminarixoa (10:00)



MIKEL TATEGGI / Goienagusiko lehendakaria

Etengabeko ikaste prozesu bat eta lagun berriak egiteko topalekua da Goienagusi



Goienagusi elkarteko lehendakaria da Mikel Tatieggi, ekainaz geroztik. Berak eman digu elkartearen funtzionamenduaren berri.

Noiztik zara Goienagusi elkarteko bazkide?

Orain dela hiru urte pasatxo egin nintzen bazkide. Jesus Mari Ugarte zen orduan Oñatiko aurpegi ezaguna elkartearen, berari galdetu nion zer ote zen Goienagusi, eta halaxe sartu nintzen. Eta, egia esan, pozik nabil ni; sorpresa atsegina izan da.

Nola funtzionatzen du Goienagusik?

Talde-lana dago oinarrian. Sei bat lantalde daude (Hitzaldiak, Tailerrak, Mendi irteerak, Bisitak, Ikastaroak...). Bakoitza arduratzen da bere ekintzak programatzeaz, eta gero zuzendaritza batzordea dago, dena koordinatzen duena.

Gehien bat hitzaldiak antolatzen dituzue, baina ez hori bakarrik.

Ez, astero bi hitzaldi egoten dira, urrian hasi eta maiatzera arte (astelehenero Arrasaten, eta asteazkenetan, txandaka, Bergaran eta Oñatin). Askotariko gaiak jorratzen dira, eta goi-mailako hizlariekin gainera.

Baina hitzaldiez gain, hilean behin mendi ibilaldi bat eta bisitaren bat egiten da enpresa, erakunde, museo eta abarretara. Tarteka, musika, dantza, antzerki edo bestelako ikuskizun handi batera joateko irteerak ere antolatzen dira. Irailean, adibidez, *Mamma Mia* musikala ikustera joan ginen Arriagara. Ikastaroak ere antolatzen dira, eta beste ekitaldi batzuk ere bai.

Eta parte-hartzea nolako izaten da?

Handia. Urte osoko batatz bestekoa eginez, hitzaldi bakoitzean 100 pertsona biltzen dira. Gainera, bazkideek etxetik *streaming* bidez jarraitzeko aukera ere izaten dute hitzaldi gehienak. Eta bestelako ekitaldi gehientsuenak ere (mendi ibilaldiak, bisita kulturalak...) bete egiten dira.

Zer ematen dizu zuri Goienagusik?

Kulturalki aberasteko aukera. Ni lanean ibili izan naiz bizi guztian eta, orain, niretako berriak edo ezezagunak ziren hainbat gairi buruz ikasteko aukera daukat Goienagusiri esker. Etengabeko ikaste prozesu bat da hau. Gainera, jendea ezagutzeko, sozializatzeko eta lagunarte berriak egiteko bidea ere ematen du Goienagusik. Nik, adibidez, mendi irteerak egiteko taldetxo bat aurkitu dut.

Gomendatuko al zenuke bazkide egitea?

Bai, noski. Ez du diru askorik balio (40€ urtean), eta, gainera, irteera edo txangoren bat dagoenean, autobusa dohainik izaten da bazkideentzat, Arrasate, Bergara eta Oñatiko udalek, eta zenbait enpresak ematen diguten laguntzari esker. Ez daukazu ezeren konpromisorik; nahi edo interesatzen zaizkizun ekintzetan parte hartzen duzu, eta, esan bezala, garrantzitsuena, nire ustez, eten gabe gauza berriak ikasteko, jendea ezagutzeko eta aktibo egoteko aukera ematen du.

Interesa daukanak www.goienagusi.eus webgunean dauka informazioa, eta niregana ere jo dezake lasai asko, edo, bestela, joan dadila Oñatin antolatzen diren hitzaldietara, irekiak izaten baitira herritar guztientzat. •

» PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

Proposamenak lehenesteko unea iritsi da

Herritarrek egindako proposamenen artean lehentasunak zehazteko saio irekiak egingo dira **urriaren 14an eta 22an**.



Oraindik bizpahiru kutzatako proposamenak zenbatzea falta bazen ere, aldizkaria ixteko orduan 250etik gora ziren Partaidetzazko Aurrekontuak 2026-2027 prozesuko lehen fasean herritarrek aurkeztutako proposamenak. Proposamen gehienak webgunearen bidez jaso dira. Baina asko dira udaleko hainbat eraikinetan jarritako kutzak erabili dituzten herritarrek ere. Kalez kale jarritako informazio puntura ere hainbat herritar gerturatu dira, prozesuari buruz gehiago jakin, zalantzak argitu edota buruan zuten ideia proposamen gisa idazteko orduan laguntza jasotzeko.

Askotarikoak dira jasotako proposamenak, baina aurreko ekitaldietan gertatu bezala, mugikortasunari edo irisgarritasunaren ingurukoak, azpiegitura bati erreferentzia egiten diotenak, kirol eta aisialdiarekin lotutakoak eta jolas parkeei buruzkoak dira jasotako proposamen gehienak.

Dena den, hurrengo egunetan errepikatutako proposamenak batu eta antzekotasuna dutenak multzokatu eta antolatuko dira.

Urriaren 1ean eta 8an batuko da prozesuaren jarraipenerako Mahai Politikoa, alderdi bietako ordezkariak osatua, eta bertan aztertuko da jasotako proposamenek aurrez ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

LEHENTASUNAK ZEHAZTEKO FASEA
Urriarekin batera, lehentasunak zehazteko fasera igaroko da prozesua eta, hemen, aurrez zehaztutako irizpideen arabera egingo da bigarren deskartea edo galbahea. Herritarrekin bateara egingo den ariketan irizpide horiek aplikatuko dira proposamenez proposamen eta baita osotasunari begira ere, aurrera egiten duten proposamenen multzoa aukeratzeko.

Horretarako, bi tailer egingo dira urrian: 14an, asteartea, eta 22an, asteazkena. Lehen egunean proposamenen erdia

landuko dira, eta bigarrean gainontzekoak.

Herritarrek bi tailerretan parte hartzea gomendatzen du Udalak, baina ezin duenarentzako, hurrengo egunetan azalduko da ohiko komunikazio kanalen bidez egun bakoitzean zein gai landuko den.

Udaleko Partaidetza sailak lehenengo fasearen balorazioa oso positiboa egin du. Eskerrak eman nahi dizkie proposamenak egiteko tarte hartu duten herritarrei, eta animatu egin nahi ditu herritarrek lehentasunak definitzeko tailerretan parte hartzera.

Proposamenak lehenesteko saioak herritar guztiei irekiak izango dira

> **Urriaren 14an eta 22an izango dira, kultur etxean, 18:00etan**

Lehentasunak zehazteko faseak garrantzia berezia dauka prozesuan. Izan ere, jasotako proposamenetatik balorazio teknikoko fasera zeintzuk pasako diren aukeratzen da. Leheneste ariketa honetan zenbat eta jende gehiagok eta anitzagoak parte hartu, orduan eta aberasgarriagoa izango da emaitza. Eta aukera emango du proposamen horiek, eskaera indibidualetatik harago, justuagoak eta onuragarriagoak izateko, eta baita herritar gehiagoren nahi edota beharrei erantzuteko ere. Horregatik, dei egiten diegu udaletik herritarrei urriaren 14ko eta 22ko saioetara gerturatzeko eta euren aletxoak jartzeko. Ariketa edonork egiteko modukoa izango da.

Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko alorra

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

**AYESTARAN
ARAIKUNTZAK S.L.**

Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com

obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak



► Ander Lizarralde (Gure Bazterrak), Pako Aristi (idazlea) eta Erein argitaletxeko ordezkariak liburu aurkezten. Herriko liburu dendetan eskura daiteke 23 eurotan



'Iñaki bota daue' ikerketa-lana idatzi du Pako Aristik, Oñatiko Gure Bazterrak elkartearen laguntzarekin

1975eko urriaren 5ean Kanpazarreko bere ostatuan hiru kaputxadunek metrailatuta erahil zuten Iñaki Etxaberen kasua aztertzen da liburuan. Egun hartan bertan, ordu batzuk lehenago, ETAk hiru goardia zibil hil zituen Arantzazuko errepidean lehergailu bat zartarazita, Txiki eta Otaegiren fusilamenduari erantzunez

Urriaren 15ean aurkeztuko dute liburua Oñatiko kultur etxean, 18:00etan

Urriaren 15ean (kultur etxean, 18:00) **'Iñaki bota daue. Kanpazar, 1975. Gerra zikinaren hastapena'** (Erein) liburua aurkeztuko dute, Pako Aristik eta Oñatiko Gure Bazterrak taldeak elkarlanean idatzitako ikerketa lana.

Izenburuan agertzen den Iñaki izenak, orain dela 50 urte, 1975eko urriaren 5ean, gaueko 10ak aldera, Kanpazar gaineko bere ostatuan hiru kaputxadunek metrailatuta hil zuten Iñaki Etxabe Orobengoa arrasatearrari egiten dio erreferentzia. Iñaki, ETAko buruzagi izandako Juan Joseren anaia zen, nahiz eta ordurako, azken honek utzia zuen erakunde armatua, 1971n.

Etxaberen, estatu terrorismoaren belaunaldi berriko lehen hilketa izan zela esan

zuen Iñigo Iruin abokatuak. Batallón Vasco Español (BVE) taldeko komando batek hartu zuen bere gain hilketa, baina Biktimen Oroimenerako Zentroak eta Euskal Memoriak, aldiz, Triple A-ri leporatzen diote, eta ATeri (Antiterrorismo ETA) egozten dionik ere bada.

Kontua da, ez zela egon Kanpazarrekoa ikertzeko inolako borondaterik. Durangoko epaitegian abiatu ziren diligentziak, gero Madrilgo Ordena Publikoako auzitegira pasa ziren, eta handik gutxira artxibatu egin zuten. Pentsa, komunikabideetan eskelak jartzea ere debekatu egin zieten senideei.

Familiak ez zuen inongo informazio ofizialik jaso eta, jakina, handik urte batzuetara Entzutegi Nazionalak ezezkua eman zion familiak egindako

eskaerari, Iñaki terrorismoaren biktimatzat onar zezan. Eta hori da, hain zuzen, liburuaren helburu nagusia, alegia, Etxabe nork eta zergatik erail zuen argitzen saiatzea, eta Estatua-ren bertsio ofizialean dauden hutsuneak bete eta gertaera haien inguruko bertsio alternatibo bat ematea, kontrastatua.



Iñaki Etxabe ez omen zen poliziak kolpea emateko jomugan izan zuen lehen hautagaia, Juan Zelaia enpresari oñatiarra baizik

ARANTZAZUKO ATENTATUA

Liburua ez da mugatzen Iñaki Etxaberen hilketa aztertzeri. Haratago ere badoa, eta esan daiteke 1975ko udazken hartan Euskal Herrian bizi izan zen garai ilunaren kronika bat ere badela.

Gogoratu behar da, Etxaberen hilketa baino egun batzuk lehenago, irailaren 27an, Juan Paredes Txiki eta Angel Otaegi

etakideak fusilatu zituztela, FRAPeko hiru militanterekin batera. Tentsio handiko egunak bizi izan ziren Euskal Herrian. Beldurra nagusi da eta polizia alerta egoeran dago, baina ezin izango du eragotzi ETaren erantzuna.

Hala, urriaren 5ean, igande goizez, Arantzazun ezarritako ikurrina kentzera (artean debekatua zegoen) Arrasateko kuarteletik abiatutako Goardia Zibilaren land roverra bueltan datorrela, txiki-txiki eginda utziko du ETak zortzi kilo goma-2 lehertarazita. Autoaren atzealdean zihoazen hiru agenteak (Juan Moreno Chamorro, Esteban Maldonado eta Jesus Pascual) bertan hil ziren, eta aurrealdean zihoazen beste biak larriki zauritu. Atentatuak mendeku gosea piztu zuen, eta egunean bertan, iluntzean, aurpegia estalita zeramaten hiru gizonek Iñaki Etxabe metrailatu zuten.

JUAN ZELAIAREN AURKAKO SAIAKERA

Liburuan esaten denez, Iñaki Etxabe ez omen zen poliziak kolpea emateko jomugan izan zuen lehen hautagaia, Juan Zelaia *Upain* oñatiarra baizik. ETari laguntzen ziola uste zuen Goardia Zibilak.

Hala, urriaren 5 hartan bertan, arratsaldean, kaleko arropak baina bota militarrek zeramatzen bi gizon joan ziren enpresari oñatiarrak Marietan zeukan etxera. Baina ez zegoen bakarrik, ehiza-lagun batzuekin baizik, eta horrek salbatu zion bizia. Horren aurrean, Etxaberen bila joatea erabaki zuten. Horren ostean, arriskuaz jabetuta, Iparralde-rako bidea hartu zuen Zelaia, eta ez zen urte eta erdian itzuli.

Liburuan daude Zelaiaren aurkako atentatu saiakeraren inguruko xehetasunak jasota, bai eta Arantzazun ETak burututakoaren ingurukoak ere. As-tebete beranduago, urriaren 12an, Legution metrailatuta hil zuten German Agirre taxilari



Liburuak dakarren argazki lazgarri honetan Iñaki Etxaberen hil-kapera agertzen da, tabernako mahai baten gainean, eta hari begira Maite, emaztea, eta Agurtzane eta Elena koinatak.



**Iñaki Etxaberen
erailketa agindu
eta burutu
zutenen izen-
abizenak ere
ausartu dira
liburuan.**

arrasatearraren hilketa ilun eta misteriotsuaren egiletza argitzeko ahalegina ere egiten da liburuan, eta, azkenik, hiru urte beranduago, 1978ko uztailaren 2an, Juan Jose Etxabek, Iñakiren anaiak, Donibane Lohizuneko bere jatetxearen aurrean jasan zuen atentatuaren ingurukoak ere aletzen dira; Etxabe ozta-ozta atera zen bizirik, 18 bala soinean zituela, baina haren emazte Agurtzane Arregi hil zen, senarra babes-teko ahaleginean.

HIPOTESI BAT

Urte asko igaro dira gertakari haietatik, eta ez da erraza era honetako ikerketa lan bat burutzea, are gutxiago dokumentu ofizialik apenas dagoenean. Baina Gure Bazterrak elkarteko kideek lan handia egin dute gertaera latz haien lekuko izan ziren hainbat pertsona elkarrizketatuz, garai hartako dokumentazioa aztertuz, eta hari guztiak lotu eta kontrastatu ostean, Iñaki Etxaberen erailketa agindu eta burutu zutenen izen-abizenak ematera ere ausartu dira. Pako Aristi kazetari eta idazlea arduratu da informazio guzti horri forma narratiboa emateaz, kazetaritza ikerketaren zehaztasuna nobela baten erritmoarekin emateaz.

Gure Bazterrak elkartea eta Pako Aristi lehenago ere aritu izan dira elkarlanean, eta horren emaitza izan zen 2023an argitaratu zuten *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* liburu ederra. •



EGIA EZKUTATUEN BILA

Pako Aristi

Estatu baten krimenak ikertzen hasten zarenean badakizu oztopo latzak aurkituko dituzula. Nagusiena: Estatuak berak daukan ahalmena krimen horiei buruzko informazioa ezkutatzeke. Ez duzu erraztasunik izango, ez laguntzarik.

Baina beti sortzen dira arrakalak, txikiak badira ere, prentsako informazioak direla, edota, bereziki, garai hartako lekukoaren oroitzapenak. Horiek guztiak sakon aztertzea da zure lana, eta Estatuak ezkutatu zuen egia haren antza izango duen kontakizun bat harilkatzea, frogatzea, justifikatzea.

Estatu baten krimena ez da fikzioa, ez da literatura: forense baten zehaztasunarekin idatzi behar duzu guztia. Horretan saiatu gara, eta Iñaki Etxaberen hilketa kontu korapilatsua bazen ere, uste dut lortu dugula kontakizun koherente bat antolatzea.

Liburua kazetaritza lan bat da, baina ez hori bakarrik: justizia ezarri nahi lukeen lan kolektibo bat ere bada, gure herriaren historia garaikidea egiatik kontatzeko bide bat, Estatuaren gezurrak eta injustiziak hauts bihurtuz.

Gauza garrantzitsu bat ahaztu gabe: Estatu krimen bat dagoenean alderik garrantzitsuena hildakoaren familia da, sendia, haiek dira protagonistak, eta hainbeste hamarkadetan izan duten sufrimendua nolabait leuntzeko eta gozatzeko ahalegin bat izaten dira gisako liburuak, egia gaitz eta nahigabe askoren sendagaia baita. •

AIREAREN KALITATEA OÑATIKO IKASTETXE-INGURUNEETAN

Bagabiltz, Eskolako Bidea proiektuaren baitan gauzatutako azterlanaren emaitzak aurkeztu dituzte



Ikerketan parte hartu duten herriko hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasle-irakasleen ordezkariak eta Izaro Elorza alkatea, emaitzak aurkezteko ekitaldian

Arnasten dugun airearen kalitatea, herriaren bizi-kalitatearen neurgailu garrantzitsuenetakoa da. Europa mailan, arnasten dugun airearen kalitateari buruzko kezka sortu da azken urteetan. Kezka hau ikastetxe-inguruneetan arnasten den airearen kalitatera ere zabaldu da.

Oñatiko ikastetxeek Udaleko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzea helburu duen *Bagabiltz Eskola Bidea* proiektuaren baitan, Oñatiko ikastetxe-inguruneetako airearen kalitate maila aztertzeko proiektua garatu dute 24-25 ikasturtean. Mugikortasunaren Europako Aspirekin bat eginez, irailean

jendaurrean aurkeztu dituzte Oñatiko ikastetxe-inguruneetan eta udalerriko beste hainbat tokitan egindako neurketen emaitzak. Oñatin arnasten den airearearen kalitateari buruzko ikuspegi zabala lortu da horrela.

IKERKETAREN PROTAGONISTAK: HAURRAK

Herritarren zientzia metodologია erabiliz gauzatu da ikerketa eta airean dauden nitrogeno dioxido (NO₂) mailak neurtu dira. *Herritarren zientziak* erakunde esanguratsuenen bermea duten metodo zientifikoak erabiltzen ditu, eta herritarrak prozesuaren funtsezko eragile dira, parte-hartzearen



» Argazkikoa bezalako dosimetroak ipini dituzte herriko 25 puntutan, eta lau astez eduki dituzte airearen kutsadura maila neurtzen. Gero, laborategi homologatu batean neurtu dituzte

bitartez. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek eta irakasleek bete dute zeregin hori. Ikerketa osatzeko, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako airearen kalitatea ere aztertu da zuzendaritza-taldeekin elkarlanean. NO₂-k eragindako kutsadura neurtzeko gailuak 25 puntutan jarri dira modu parte-hartzailean. Kutsadura maila neurtzeko gailuak ikastetxe-inguruneetan kokatu dira, baina baita kale jendetsuetan, plazetan eta espazio publiko garrantzitsuetan ere.

Haurren zeregina kutsadura neurgailuak non kokatu proposatzea eta neurgailuak jartzen eta batzen laguntzea izan da. Neurketak egiteko hodi edo



Oñatin neurtutako guneen batez besteko mailak 10 ug/m³ azpitik daude, Osasunaren Mundu Erakundeak osasunerako egiten duen esposizio-maila seguruaren gomendioaren balioen azpitik



NO₂ kontzentrazio maila altuenak, 10 ug/m³ baino gehiago dituztenak, ibilgailu motordunen trafikoa handiena duten lekuetan jaso dira

dosimetro pasiboak erabili dira, eta 4 astez aire zabalean egon ondoren, Ingalaterrako laborategi homologatu batera bidali dira prozesatzeko. Oñatin erabili den metodologia nitrogeno dioxido mailak (NO₂) monitorizatzeko Europako hainbat proiektutan erabilitako berberak dira.

NO₂ kutsatzailea ibilgailuen, berogailuen eta industrien errekuntza-motorrek sortzen dute. Nitrogeno dioxidoaren maila altuek arnas-infekzioak azaltzea errazten dute, hala nola bronkitisa bereziki adineko pertsonen kasuan, eta bronkiolitisa haurren kasuan. Gainera, asma eta alergia dituzten pertsonen sintomak zorrotzagoak dira.

IKASTETXEA	NO ₂ ug/m ³ (Bataz besteko balioa)
Txiki Txoko haurreskola	5,56 ug/m ³
Txantxiku ikastola LH	10,21 ug/m ³
Urgain Herri Eskola	4,52 ug/m ³
Elkar Hezi LH	10,81 ug/m ³
Txantxiku ikastola DBH	7,28 ug/m ³
Oñati BHI Institutoa	9,01 ug/m ³
Elkar Hezi DBH	9,17 ug/m ³
Oñati BHI - Larraña eraikina	6,41 ug/m ³

EMAITZAK

Oñatiko datuak Europako kontestuan kokatzeko honakoa izan behar da kontutan: Lege markoari dagokionez, Europar Batasunean 40 ug/m³ azpiko kutsadura mailak lege barruan kokatzen dira. Europar batasunaren helburua baina 2030 urterako 20 ug/m³ azpiko mailak lortzea da.

Osasunaren Mundu Erakundeak berriz NO₂-arekiko esposizio-maila seguruak 10 ug/m³ edo honen azpitik kokatzen ditu, eta helburu hori lortzeko urratsak emateko beharra planteatzen du.

Analisi-laboregitegitik jasotako datuak aztertuta, honako ondorio nagusiak atera zituzten aurkezpen ekitaldian:

Oñatiko herri-eremu osoari dagokionez, neurketaren emaitzek adierazten dute NO₂-ren kontzentrazioak 3,61 ug/m³ eta 15,8 ug/m³ artekoak direla, eta Oñatiren bataz besteko balioa 8,50 ug/m³ dela. Oñatin neurtutako guneen batez besteko mailak 10 ug/m³ azpitik daude, Osasunaren Mundu Erakundeak osasunerako egiten duen esposizio-maila seguruaren gomendioaren balioen azpitik.

NO₂ kontzentrazio maila altuenak, 10 ug/m³ baino gehiago dituztenak, ibilgailu motordunen trafikoa handiena duten lekuetan jaso dira, eta beti ere Europar Batasunean 2030 urterako erreferentziazko balioa den 20 ug/m³ azpitik. Ibilgailuen zirkulazio handieneko eremuetako kontzentrazioak 10,89 ug/m³ eta 15,83 ug/m³ artekoak dira, Balio altuena Roke azkuneko errotondan jaso da 15,83 ug/m³.

Ikastetxe-inguruneetara dagokionez, batez besteko balioek erakusten dute lotura zuzena dagoela motordun trafikoa-maila handiagokoak dituzten kaleen hurbiltasunaren eta NO₂ maila altuagoen artean. Aztertutako zortzi ikastetxe-inguruneak daude OMEk kutsatzaile horrentzat epe ertaineko helburu gisa gomendatutako esposizio mailaren parean 10 ug/m³ edo azpitik. Jasotako emaitzak positiboak direla azaldu zuten aurkezpen ekitaldi publikoan. Hurrengo urratsa inplikaturako eragileek (ikastetxeek, gurasoek eta Udalak) emaitza oraindik hobeak lortzeko elkarlanean eman beharreko urratsak adosten saiatzea izango da.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



Asier Altunaren 'Karmele' filmean parte hartu dute Ganbara Abesbatzako kideek



> Soinu banda grabatzen ez ezik, aktore lanetan ere parte hartu dute

> Donostiako Zinemaldian aurkeztu ostean, urriaren 10ean iritsiko da zine aretoetara

> Oñatin urriaren 24tik 27ra ikusi ahal izango dugu **Karmele** filma

Asier Altuna (Bergara, 1959) zinema zuzendari eta gidoi-gilearen *Karmele* film berrian parte hartzeko aukera izan dute Ganbara abesbatzako zortzi kidek

1936ko gerra zibil garaiko istorio bat kontatzen du Altunaren film luze berriak, eta, hain zuzen ere, hego Euskal Herrian bizi zen egoera mundu osoan zabaltzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak sortu zuen *Eresoinka* euskal musika eta dantza taldearen rola bete dute Ganbara taldekoek,

Kup abesbatzako beste kide batzuekin batera.

Lehenik eta behin soinu banda grabatu zuten maiztzean, Oiartzungo *Mecca* estudioan, baina ahotsa jartzeaz gain, Eresoinkaren historia kontatzeko akto-reak ere behar zirenez, taldeko abeslari paperean ere aritu dira, ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan, eta Aitor Biainek Eresoinka koruko zuzendaria izan zen Gabriel Olaizolaren rola bete du.

Hainbat lokalizaziotan



Ganbara Abesbatzako 8 kidek (Amaia Guridi, Leire Barrena, Ainhoa Urzelai, Arantzazu Ugarte, Naiara Urizar, Nere Ibarra, Karlos Etxaniz eta Aitor Biain) parte hartu dute pelikulan, **Eresoinka** abesbatzaren historia kontatzeko. Aitor Biainek koruko zuzendari izan zen **Gabriel Olaizola**ren rola bete du.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SIKAI DE ALTZARIAK • ALTZARI BUSTIKOAK • NEIURRIA ENPATATIRIKO ALTZARIAK



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

egin dituzte grabaketak, hala nola: Hendaian, Bizkaiko Artaza gazteluan, eta Donostiako Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharrean. Pelikulako aktore protagonistekin eta dantzariekin, besteak beste, lan egiteko aukera izan dute, eta oso esperientzia polita izan da, Ganbarakoek aitortu digutenez.

SINOPSISIA

Karmele pelikula fikziozko filma da eta Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian oinarrituta dago. Karmele Urresti eta Txomin Letamendiren benetako istorioa kontatzen du eta Kritikaren Sari Nazionala (Euskarazko narratiba sailean) eskuratu zuen.

Filma, esan bezala, Espainiako gerra zibilean kokatzen da. 1936ko urrian Frankoren armada Ondarroan sartzen da eta 24 urteko Karmele erizain gaztearen familiak Frantziara alde egingo du itsasontzian. Han, erbesteko euskal enbaxada kulturalaren proposamena jasotzen du Karmelek, dantza- eta musika-ikusikizunen bidez gerraren kontra borrokatzeko. Bertan Txomin ezagutzen du, tronpeta-jole profesional bat, eta harekin maitemintzen da. Denboraldi batez Venezuelan bizi ostean, bikotea etxera bueltatzen da, kendu zieten guztia berreskuratzeko esperantzarekin.

OÑATIN URRIAREN 24tik 27ra IKUSGAI

Asier Altunaren lan berria Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu da, oso kritika onekin aurkeztu ere, eta Oñatin urriaren 24tik 27ra ikusi ahal izango dugu, eta ohiko ordutegiaz gain, astelehen gauerako (22:00) emanaldi berezia programatu da.

Paul Urkijoren 'Gaua' filmeko soinu bandari ahotsa jarri dio Ganbara Abesbatzak

> Sitges-eko Zinemaldian estreinatuko da pelikula eta azaroaren 14an iritsiko da zine aretoetara



XVII. mendean dago girotuta pelikula, eta aurrekoetan bezala euskal mitologia eta elezaharren mundura eramango gaitu zuzendari arabarrak.

Errementari eta *Irati* arrakastatsuen ondoren, Paul Urkijo (Gasteiz, 1984) zinegile arabarrak filmatu duen hirugarren luzemetraian ('Gaua') parte hartu du Ganbara Abesbatzak, pelikulako soinu bandari ahotsa jarritz.

XVII. gizaldian girotuta dago *Gaua* eta, aurrekoetan bezala, euskal mitologia eta elezaharren mundura eramango gaitu Urkijok. Halaxe dio sinopsiak: Sorgin ehiza batean, Kattalin, senarrarengandik ihesi, bere baserritik aterako da gauaren erdian. Baso beltzean galduko da eta bere atzetik segika duen presentzia bat sentituko du. Ihesean dabilela, hiru emakume maitagarriekin topo egingo du. Horiek, arropa garbitu bitartean, beldurrezko ipuinak eta herriko esamesak kontatzen dizkiete elkarri. Kattalinen harridurarako, bera izango da istorio horien protagonista.

Yune Nogueiras da protagonista, eta Elena Irureta, Ane Gabarain eta Iñake Irastorza ditu ondoan. Euskaraz sortua dago filma, eta, esan bezala, Ganbara Abesbatzak pelikularako soinu banda grabatu du, Arantzazu Calleja eta Maite Arroitauregiren musikari ahotsa jarritz, *Irati* pelikulan egin bezala. Irailaren 6an grabatu zuten soinu banda, Zarauzko *Noise* estudioan, eta 18 abesti grabatu zituzten. Hamabi orduko grabaketa izan zen, baina emaitzarekin oso gustura geratu zirela azaldu digu Aitor Biain Ganbarako zuzendariak. "Ekarpen nabarmena egiten dio pelikulari".

Sitges-eko Zinema Fantastikoaren Jaialdian estreinatuko da filma, urrian, eta azaroaren 14tik aurrera ikusi ahal izango dugu zine aretoetan.



Gaua-ren grabazioan parte hartu zuten Ganbarako kideak, pelikulako soinu arduradunekin.



◀ Oneka Anduaga, Auzoko programaren koordinatzailea, eta Diana Hernandez, Oñatin urtebete daraman nikaraguarra, eta euskara ikasi nahi duena gure artean integratzeko

» **DIANA HERNANDEZ** / AUZOKOko kidea

"Auzoko-n aurkitu dut kanpotik datorren edozein pertsonak behar duen familia"

Urriaren 15ean jarriko da martxan Oñatiko udalak eta Txatxilipurdi elkarteak antolatzen duten **AUZOKO** programa, jatorri ezberdinetako pertsonen euskarara hurbildu eta herrian integratzen laguntzea helburua duen ekimena. Dinamika ohikoa izango da: asteazkenetan elkartuko dira Eltzian **Auzokideak** (Euskarara hurbildu nahi duten pertsonak) eta **Auzotarrak** (euskal hiztunak, etorkinei euskararako bidea egiten laguntzen dieten herritarrak), eta ekintza ludikoen bidez (mahai-jolasak, tailerrak, kantak...) egunerokoan erabiltzen ditugun euskarazko hitzak eta elkarrizketa motzak landuko dituzte. Iaz 30 herrialde ezberdinetako pertsonen parte hartu zuten AUZOKOn. Horietako batekin, jatorriz Nikaraguarra den Diana Hernándezekin izan gara.

Nolatan iritsi zinen Auzokora?
Iazko abuztuaren iritsi nintzen Oñatira. Ordurako nire senarra hemen zegoen, eta berak eman zidan Auzoko-ren berri, aukera ona zela kanpotik gatozen pertsonentzako, euskara ezagutzeko, oinarritzakoa, eta, bide batez, integratzen laguntzeko.

Espero zenuena aurkitu al duzu?

Bai, eta oso eskertuta nago Onekari eta taldekide guztiei.

Auzoko-n aurkitu dut kanpotik datorren edozein pertsonak behar duen familia. Benetan, nire bigarren familia bilakatu dira; oso arretatsuak dira, beraien bidez Oñatiko toki eta pertsona asko ezagutu ditugu, eta gogo biziz saiatzen dira herrian integratu gaitezen, eta horretarako giltzarrietako bat hizkuntza da, jakina.

Aurten, adibidez, Oñatiko inauterietan dantzan irteteko aukera eman digu Auzoko-k,

AURKEZPEN SAIOA URRIAREN 15EAN

Urriaren 15ean, egingo da 2025-2026 ikasturteko AUZOKO programaren aurkezpen saioa Eltzia 3. solairuan, 19:00etan. Herriar guztiak daude gonbidatuta, euskarara hurbildu nahi dutenak, eta baita hauei laguntzeko prest dauden euskal hiztunak ere. Informazioa: 688 651 205

eta horrelako ekimenak giltzarri dira, nire ustez, komunitatean integratzeko. Euskaraldian parte hartzeko aukera ere izan nuen, enbaxadore gisa —ohore handia izan zen—, eta beste hainbat ekintzatan. Oso gustura egon naiz, goxo-goxo hartu gaituzte, eta, poliki poliki, oñatiarrak ezagutu eta Oñati benetan maitatzera iristeko bidea egiten lagundu didate.

Nola daramazu euskara?

Ari naiz, poliki-poliki. Aurten euskaltegia izena eman dut, baina Zumarragako enpresa batean lanean hasi naiz eta, oraingoz behintzat, ezingo naiz hasi, ordutegiagatik.

Dena den, Auzoko-n jarraituko dut, oso gustura, eta animatu egin nahi dut jendea bertan parte hartzera, giro oso ona egoten delako, familia bat garelako, eta denok ikasten dugulako, guk zuengandik eta zuek guregandik. ■

"Kanpotik datozenek euskara ikastea nahi izaten dugu, baina guri, euskal hiztunoi ere badagokigu geure aletxoa ipintzea, eta **Auzoko** da horretarako aukera on bat"



ONEKA
ANDUAGA GARAI
AUZOKO-ko
koordinatzailea



Oneka Anduagak gidatu du azken urte eta erdian AUZOKO programa, eta bera arduratuko da aurtan ere **auzokide** eta **auzotarren** arteko saioak dinamizatzeaz.

AUZOKO bezalako programa batek daukan garrantzia azpimarratu nahi du, eta dei berezia egiten die herritar euskaldunei bertan parte hartzera. "Bai, izan ere, kanpotik datorren jendeak euskara ikastea eta herrian integratzea nahi izaten dugu, baina geuri ere badagokigu gure aletxoa jartzea, eta **Auzoko** da horretarako aukera on bat. Azken batean, astean ordu eta erdiko saio bat besterik ez da izaten (asteazken arratsaldetan, 15:00etan edo 19:00etan), eta hor dugu aukera oso ona euskarara hurbildu nahi duen jendeari bide hori egiten laguntzeko, eta elkarren arteko zubiak eraikitzeko"

"Gainera", jarraitzen du Onekak, "asteazken guztietan etortzerik ez badauka ere, ez da inporta, saioek ez dutelako jarraikortasunik eskatzen. Beraz, asteazken batean ahal baduzu, etorri, eta beti izango zara ongietorria, zenbat eta jende gehiago elkartu, orduan eta aberatsagoa izango baita saioa. Oso dinamikoak izaten dira saioak (jolasak, tailerrak, kantak...) eta arratsaldea pasatzeko beste modu bat da, jende berria ezagutuz eta elkarrengandik ikasiz".

Gogoratu, gainera, **auzotar** izateko ez dela beharrezkoa euskara maila ona edukitzea. "Hemen oinarritzko euskara lantzen dugu, egunerokoan erabiltzen diren hitz eta esaldiak; beraz, euskara dakien edozein herritar da ongi etorria. Horregatik ez kezkatu", dio Anduagak.

Komeni da argi uztea, era berean, **Auzoko** ez dela soilik etorkinei zuzendutako programa bat. "Ez, Oñatin badago jendea bere garaian euskara galdu zuena, edo Oñatin urte askoan bizi arren euskara ikasi ez duena, edo euskaldun berria dena... Horientzat guztientzat ere bada **Auzoko**", azaldu digu dinamizatzaileak. "Euskarara hurbildu nahi duten pertsonak, eta hauei laguntzeko prest dauden euskal hiztunak; bietatik behar ditugu **Auzoko**-n".

Gogoratu, **urriaren 15ean** (Eltziako 3. solairuan, 19:00etan) egingo dela aurtengo ikasturtearen aurkezpen saioa.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 688 651 205 (Oneka) zenbakira, edo jarraitu **@auzokoonati** Instagram kontua.

iritzia

Nork egingo du, guk geuk egiten ez badugu?

Herriko jaietan murgilduta gaudela aprobetxatuz, horien inguruan hausnartzea proposatzen dizuegu. Gure herria ezaguna da urtean zehar jai asko izateagatik, eta oñatiarrok harro diogu hori. Izan ere, herrikoiak dira, besteak beste, gure auzoetako jaiak, pertsona askok inongo interes pertsonalik gabe egiten duten debaldeko lan handiari esker.

Zerk egiten ditu jai batzuk herriko? Esandako boluntarioen lanak, "herritik herrixandako" egindakoak, bertakoa balioan jartzeak, auzo bakoitzeko eragileen arteko batasunak, txikitasunak, bakantasunak... Jaiak, gure ustez, bertakoa aldarrikatzeko aukera dira; eta ba al dago, bada, gure kasuan, geure hizkuntza baino bereizgarri hoberik? Horregatik, euskarak erdigunean egon behar duela aldarrikatu nahi dugu, beste behin ere.

Aixotu-tik, apirilean hasi eta irailera arte izan ditugun auzo guztietako jai batzordeei mezu bat helarazi genien honakoa eskatzeko: errepara ziezaietela beraien jaietan erabiltzen ziren hizkuntzei, bereziki txosnan jartzen zuten musikari, eta beste hizkuntza batzuk baztertzeko inolako asmorik gabe, mesedez, egin zezatela euskararen aldeko hautua.

Batzordeetatik jasotako erantzunak positiboak izan ziren, eskatutakoa kontuan izango zutela esan ziguten, eta askok gure proposamena txalotu ere egin zuten. Goraipagarria da, bestalde, aurtan ere izan dugun eskaintza kulturala, askotariko kontzertu eta bestelakoekin, gehienak euskaraz. Hori, zalantzarik gabe, euskal sorkuntzaren uza aberatsaren erakusle da.

Hala ere, atsekabetuta gaude konturatu garelako askok entzungor egin ziotela gure iradokizunari, jai askotan gaztelerazko musika gailendu baita. Ez daukagu ezer beste hizkuntzen aurka, are gutxiago beste herrialde batzuetako musikaren aurka, baina konturatu behar dugu, geure jaietan ere zapaltzen gaituzten kulturak eta hizkuntzak erdigunean jartzen baditugu, gureak egin duela. Nork egingo du geurearen alde guk geuk ere egiten ez badugu?

Iñigo Madina Olalde eta Maddi Murgiondo Moia (Aixotu)

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

'Oñatiko euskera' liburuko hiztegixaren bigarren ediziñua: herrixak emundakua, herrixari itzuli

Orain dala hamaika urte 'Oñatiko Euskera' liburua argitaratu euen Roberto Altunak, Kepa Elortzak eta Koldo Zumaldek. Gure euskeriaren ezaugarri morfologiko, fonetiko eta sintaktikuz gain, Oñatiko hiztegixa, esaera zaharrak eta esapidiak be baekarren liburu harek. Bada, orain, orduko hiztegixaren bigarren bersiñua, eguneratua, ondu dau Altunak, lehenengo haretan egozen errenkura edo akatsak zuzendu, falta ziran berba jakingarri batzuk gehitu, adibidiak ugaritu eta berba guztien itzulpena egindda. Oraingo behintzat, Interneten bakarrik egongo da eskuragai Oñatiko udalaren webgunian. Gure euskeriari eutsi gura xauen edozein herritarrek ulertu eta gozaitteko moduko lana. Urte eta erdi fan da udal euskaltegixan erretirua hartu ebenetik, baiña lanian jarraiketan dau Altunak Oñatiko euskeriaren transmisioñuaren alde.

Erretirua hartuta be, ezin geldi egon, Roberto. Zer lan dakartzu orainguan?

Orain dala urte pare bat *Gure katona* liburuxka kaleratu ondoren, jakin neben Bilboko Iberba Aholkularitza Zerbitzuak *berbategia* izeneko web orri bat eukala herri euskerako hiztegixak Internetera jasoteko. Eurakin harremanetan jarri eta *Gure katona* bertara jaso geben. Haren ostian *Oñatiko euskera* liburuko hiztegixa atonketan hasi nintzan, hori be leku berera igoteko asmuagaz.

Atondu biharrian eguen ala?

Bai, bazittuen zuzendu biharreko berba batzuk eta gehiketako edo osoketako beste asko.

Zein da orduan hiztegixaren bigarren ediziño honetarako egin dittuzun aldaketa nagusiak?

Ba, egixa esanda, ikutu bat hemendik, ikutu



Lehenengo ediziñuan egozen errenkura edo akatsak zuzenketiaz gain, berben aldaerak, adibidiak, espapidiak eta esaerak gehitu dittut; 3.216 sarrera danera, 142 orrialdetan

Gure euskeriari eutsi gura xauen edozein herritarrek ulertu eta gozaitteko moduko lana dala uste dot. Maisu-maistra eta ikasliak be ebaliko dauela pentsaitten dot

bat bat handik, azkenera orduko makiñatxo bat aldaketa egin xat lehenengo ediziñuari. Lehenengo eta behin errenkuraak edo akatsak zuzendu, gero dana erderara itzuli; hurrengo, berben aldaerak eta adibidiak gehitu, baita esapidiak eta esaerak be; ondoren, genero kontua zainttu bai berbetan, bai hitanoko aditz formetan, eta azkenik, hiztegi formal batek euki bihar dittuen atalak osotu: sarrerria, idaztarauen azalpena, laburdurak eta ikurrak, bibliografia.

Gustora geratu zara emaitzarekin?

Eginddako lana beste pauso baten moduan ikusten dot. Duda barik, aurrekua baiño hobia da, eta bixar edo etzi egingo dan besteren bat baiño eskastxuagua izatia espero dot.

Hurrengua zelakua izan biharko litzake?

Hiztegixaren sarreran esaten dogun moduan, hobekuntzak hobekuntza lan hau ezta Oñatiko euskeriaren hiztegi osua. Gurako neuke hala balitza! Baiña ez, holako zerbait egitteko, Umerez, Zabaleta, Izagirre, J. Elortzaren eta A. Lizarralderen lanak, Kontzejupetikeko gaiñetiko saillen artikuluak: *Ttirri-ttara, ITTEN...*, Ahotsak-eko grabaziñuak eta abar luzia aztertu eta hustu biharko litzake. Noizbait egin biharko da hori be! Sekulako lana; adoria, dedikaziñua eta dirua eskatuko dittuena, duda barik! Dana dala, dagueneko batzun batzuk badihardue zeregin horretan eta horrek sekulako poza emuten dost.

Hortaz, hiztegi honetara joko dauenak zer topauko dau?

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@egentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS URBIA MARGOAK

Ultzezin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837



Roberto Altuna Erle, herriko hiztegixaren azkenengo lana esku artean duela

Topauko dittu eguneroko berba asko eta asko, hemengo euskaldunak ebalituenak eta oraindik be geure etxietan normal ebalten diranak, nahiz eta egongo diran batzuk ezkuta dagozenak, ahanzturia, lotsia eta ezjakinttasunaren mantopeian, edota besterik barik, hizkuntz molde barrixaguen eta erdaren azpizan. Baserri mundukoak ugari dira —horregatik darixon kutsu etnografikua—, baiña baita kalekuak be, oroimen kolektibotik desagertu aurretik berreskuraketan saiatu garenak. Guztira, 142 orrialdetan, 3.216 sarrera moldau dittut

Hiztegixa egitterunzkuan zeintzuk izan dituzu buruan?

Asmo didaktikoz eskribiuta dago, hortaz herriko eskoletako maisu-maistrak eta ikasliak ebaliko dauela pentsaiten dot,

INTERNETEN ESKURAGAI

Oraingoz, Interneten soilik eskuratu ahal izango da Roberto Altunak osatu duen hiztegia, <https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak> webgunean. Beheko QRak ere bertara eramango zaitu.



helburu nagusixena hurrengo belaunaldixairi bertako berbetia erakustia eta lehengo euskera eta oraingurearen arteko zubi-lana egittia da-eta.

Hortik aparte, edozein herrittarrak be irakurteko modukua dala uste dot, memorixia freskauaz gozauko dauela uste dot eta.

Hiztegixau nun egongo da eskuragai?

Oraingoz behintzat liburu formatuan ezta kalia egongo. Interneten bakarrik egongo da eta eskuratu gura dauenak Oñatiko udalaren web orrira jo biharko dau: <https://www.oñati.eus/eu/udala/argitalpenak> atalera, eta handik jaitsi biharko dau pdf formatuan. Artikuluaren barreneko QR ikurra joaz be deskargau ahal izango dau.

Aurrerago, hasieran aittatutako Iberba Aholkularitza Zerbitzuko www.berbategia.eus (hiztegiak/denak/Oñati (altuna, elortza, zumalde)) helbidian be egongo da, berba-billatzaille formatuan jarritta.

Besterik esateko?

Bai, lan honen bidez omendu gurako nittuke gure aurreko guztiak, honetan eta beste gauza askotan, izandako jokabide miragarrixagatik; izan be, iragako gizaaldattatik datorren ideologia nagusixari aurre egiñaz geure hizkuntzia gaur egunera arte ekarri daue, berori erakutsi doskue eta, aginduak agindu, eta, iritzixak iritzi, gogor eutsi xaue geuriari. Horregatik, hain zuzen be, bizirik dirau bai euskeriak bai euskeriaren herrixak be. Mundu moderno honetan —superkonektua eta hipersofistikaua bera— bizi garen oraingo oñatiarrok, aittatutakuen ondorenguk, eztagogu erronka makala hareiña tapau gura baldin badogu. Gauza izango ahal gara beste hainbeste egitteko!

Bestetik, eneuke iñola be ahaztu gura lan hau ontzeen eta bururaino eruaten lagundu dosten guztiak. Dan-danoiri neure eskerrik beruenak!

● OÑABIKE
est. 95

Urrats berriak, Natur Eskola herrira zabaltzeko



Natur Eskolako lantaldea, udaleko Ingurumen batzordeko buru Iker Oñaterekin

Oñatiko Udalak Tantai enpresari esleitu dio Natur Eskolaren zerbitzua hurrengo lau urteetarako. Udako oporraldi aurretik bukatu zen esleipen prozesua, eta hezitzaileek iraila astearekin batera ekin diote ikasturteari. Hainbat aldaketa izango ditu, gainera. Oro har, ikasturte honetatik aurrera, ikasleei eskainiriko zerbitzua baztertu gabe, Natur Eskolak eskaintza zabalagoa izango du herritarrentzako.

“Esleipen berriarekin, urrats berriak egin dira Natur Eskola herritarrengana gerturatzeko. Finean, erreferente da ingurumenaren alorreko heziketan, sentsibilizazioan... Eta indargune horretan sakondu gura da Oñatiko Udaletik. Erabiltzaile profilari ere erreparatu zaio. Alegia, adin guztietako oñatiarrentzako espazio izan gura du Natur Eskolak, norbanako zein elkarteentzako; eta hainbat aldaketa egin dira bide horretan”, azaldu du Iker Oñate Aiaitui Ingurumen batzordeburuak.

Tartean, ordu gehiago izango dira oñatiarrei begirako eskaintzarako, eta eraikinaren erabilera zabaltzeko gura da, profil eta adin ezberdineko herritarrentzat an-

tolaturiko ekintzen bidez. Bide horretan, hainbaten artean, ikastetxei ez ezik, aholkularitza edo bide-laguntza eskainiko zaie herriko bestelako elkarte edo eragileei; ingurumen gai desberdinak lantzeko eskola edo lan orduz kanpoko ekintzak edota irteerak antolatuko dira adin desberdinetako oñatiarrentzako (gaztetxoak, helduak...); Natur Eskola eraikinaren erabilera zabaltzeko ekintzak antolatu eta koordinatuko dira...

SENSIBILIZAZIO KANPAIAK

Horrez gain, gutxienez, lau sentsibilizazio kanpaina antolatuko ditu urtero Oñatiko Udalak Natur Eskolaren bidez: Ingurumen jardunaldiak, Mugikortasun astea, Ura eta erreken astea eta Hondakinen prebentzioaren astea. “Ingurumenaren alorreko heziketan eta sentsibilizazioan urrats berriak egitea eskatzen dute gaur egungo egoerak eta etorkizuneko erronkek. Ingurumena zaintzeak duen garrantziaz jabetzea, mugikortasunaren bidezko isuriak murriztea, errekek garbi mantentzea edota hondakinen kudeaketa iraunkorra oso garrantzitsuak dira datozen urteei begira. Epe luzera begira, era kontzientean egindakoak dira ekintza eraginkorrenak. Zenbait gairi

» Ikasleei begirako eskaintza indartzeaz gain, eskolaz kanpoko ekintzak edota irteerak antolatuko dira adin desberdinetako oñatiarrentzako

» Ingurumenaren alorreko heziketan eta sentsibilizazioan urrats berriak ematea eskatzen dute gaur egungo egoerak eta etorkizuneko erronkek, eta horretan sakondu gura du Udalak, Natur Eskolarekin elkarlanean

loturiko sentsibilizazio ekintzak indartu gura dira”, argitu du Ingurumen batzordeburuak.

Esan moduan, ikasleak ez diren herritarrengana heldu gura badu ere, Natur Eskolak ez du ikasleei begirako eskaintza baztertuko. Are: indartu egingo du —tartean, ordu gehiago eskainiko die herriko ikastetxei—. Haiei begirako eskaintza zabaltzeko gura du; eta, datorren ikasturteetik aurrera, Natur Eskolatik kudeatu eta koordinatuko da herriko ikastetxeek urtez urte lantzen duten Agenda 2030 programa. Oro har, zerbitzu integralagoa eta zabalagoa emango zaie herriko ikastetxei.

BESTE SAILEKIN ELKARLANA

Esleipen berriarekin, Oñatiko Udalak urrats berriak egin ditu ingurumen heziketa Udaleko beste zenbait alorretara zabaltzeko. Besteak beste, udako eskaintzari begira, aurreko urteetako esperientziatik, **NATURAISIA** izeneko programa eskainiko da; eta, berrikuntza bezala, Haur eta gazteria sailarekin koordinatuta, ingurumen heziketari loturiko ekintzak eskainiko dira udaleku irekietan.



Natura ulertzea, maitatzea da

'IBAILAGUN 2025'

Urtero legez, uraren eta ur ekosistemen garrantziaz jabetzeko, urriaren 18tik 24ra bitartean hainbat jarduera egingo dira. Hona hemen egitaraua

EGITARAUA

- Urriak 18, larunbata, 10:00etan plazan
ERREKA GARBIKETA
- Urriak 19, igandea, 9:00etan Posta Geltokian (13:30ean Donostiatik buelta)
IRTEERA: "URUMEA KAYAKEAN".
Plaza mugatuak. Helduak 10€, ikasle-langabetuak 7€, eta 16 urtetik beherakoak 5€ (bakoitza heldu batekin etorri beharko da). Derrigorrezkoa izena ematea (*).
- Urriak 21, asteartea, 17:00etan Natur Eskolan.
HERRITARREN ZIENTZIA: "IBAIALDE: GURE ERREKEN AZTERKETA ETA EZAGUTZA".
Olaran eta Oñati erreken azterketa. Derrigorrezkoa izena ematea.
- Urriak 22, asteazkena, 19:00etan zine aretoan
DOKUMENTALA: "KANTAUARI".
Zuzendariak Xabier Mina eta Isaias Cruz.
- Urriak 24, ostirala, 19:00etan Kultur Etxeko zine aretoan.
HITZALDIA: "UR-SATORRA: GAUEKO HARRIBITXI FRENETIKOA".
Hizlaria: Jon Levy Otheguy, biologoa, EHUKo ikerlaria.



(Jorge Gonzalez Esteban)

UR-SATORRA

Lehen gure erreketan ugaria bazen ere, gaur egun galzorian dago ur-satorra edo muturluzea. Tronpadun xagutxo baten tankerakoa da eta gauez bizi da ur lasterretan. Urriaren 24ko hitzaldian izango dugu hobeto ezagutzeko aukera.

(*) Izen-ematea: natureskola@yahoo.es
edo 943716404

HERRITARREN ZIENTZIA, ZER DA?

Udaleko natur ingurune hurbilean bizi diren animalia, landare edo ekosistemen ezagutza eta kudeaketa areagotzea da Herritarren Zientziaren xedea. Horretarako, lehenengo, ezagutza-saioak egiten dira: ezagutu eta aztertu nahi den gai jakin baten inguruko informazioa jasotzen dute herritarrek adituen eskutik. Ondoren, aldeztu aurretik ezarritako data eta metodologiak jarraituta, gaiaren inguruko datuak jasotzen dira metodo zientifikoa jarraituta eta adituei igortzen zaizkie. Ikasturte honetan, **IBAIALDE**z gain, beste lau programa jarriko dira abian herriko animalien ezagutza hobetzeko. Ez da naturan inguruko ezagutzarik behar herritarren zientzian aritzeko; naturarekiko jakinmina eta 16 urtetik gora izatea nahikoa da. Animatu herriko natura ezagutu eta zaintzen!



Debagoieneko Palestinaren Aldeko Sarea aurkeztu dute



Urriaren 25ean
Arrasaten
egingo den
manifestazioan
parte hartzera
deitu dituzte
herritarrak

Palestinaren herriaren aurkako sarraskia gero eta luzeagoa eta bortitzagoa dela ikusita, eta erakundearen pasibotasuna eta konplizitatearen aurrean, Debagoieneko Palestinaren Aldeko Sarea sortzea erabaki dute, indarrak batu, erantzun amankomun bat eman eta oihu ozena egiteko asmoz.

Palestinaren aurkako genozidioa salatzen eta bistartzeko mugimendua da, irekia eta partehartzailea. Sarraski hau geldiarazteko eskura dituen tresna guztiak erabiliko dituen. Israeldar jatorriko produktuei boikota egitea bultzatuko duena, eta enpresa zein erakundeei Israelerikiko harreman komertzial eta politikoak etetea exijituko diena.

Horrez gain, Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiari eskatu nahi diote, Nazio Batuen Erakundeak eskatutako azken txostenean oinarrituta, gizateriaren aurkako krimengatik genozidio honen arduradunak inputatzea eta epaitzea. Eta Europa Batasunak zein Estatu Batuek utz diezaiotela sarraski honen konplize izateari. Azkenik, urriaren 4an, Iruñean, eta urriaren 25ean Arrasaten egingo diren manifestazioetan parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak, geldi egotea ezin delako aukera bat izan.



Egoitzetako langileek borrokan jarraitzen dute

Urtarrilean abiatutako lan hitzarmen berriaren negoziazioa blokeatuta dagoela salatzen, borrokan jarraitzen dute adinekoen egoitza eta eguneko zentroetako langileek. Irailaren 24, 25 eta 26an greba egin zuten, eta, gogoratu, ekaina eta uztailean beste sei greba egun burutu zituztela. Negoziazioa desblokeatzea eta, besteak beste, jardun osoko kontratuak langile guztientzat, lan-kargak arintzea eta soldata arrakalarekin amaitzea eskatzen dute. Sektorean gehiengoa duen ELA sindikatuak azaldu duenez, erizain laguntzaileen artean, adibidez, %25eko arrakala (10.000 euro baino gehiago urtean) dago langile publiko eta azpikontratatuaren artean, eta arrakala hori are handiagoa da lan jardun partziala dutenen kasuan. Denera 5.000 bat langile biltzen dituen sektore honetan partzialtasuna %45ekoa da. "Kontuan izanda langile gehien-gehienak emakumeak direla, genero arrakalean txapeldu da sektorea", adierazi du ELAk.



EAEko Adiskide Numerario izendatu dute Aitor Zubia

Aitor Zubia Azkue (Oñati, 1976) arkitektoa Euskalerriaren Adiskideen Elkarte (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) kide numerario izendatu dute. Irailaren 27an egin zen sarrera ekitaldia Bergarako San Pedro elizan. 'Zaindu maite duzun hori. Ondare eraikiaren esku-hartze eta kudeaketa' sarrerako ikasgai edo hitzaldia eman zuen Zubiak, ohorezko domina eta diploma jaso aurretik. Arkitekto oñatiarrak ibilbide oparoa egin du ondare eta eraikin historikoen zaharberritze lanetan.

Udal kale-garbitzaileak greban dira irailaren 27az geroztik

Egutegi duina eta lantaldea handitzea –bi peoi gidari gehiago– eskatzen dute 2026ra begira

Udal gobernua eta langileen ordezkariekin osatutako negoziazio mahaian aurrerapausoak eman direla onartuta ere, udal kale-garbitzaileek greba mugagabea hastea erabaki zuten, irailaren 27tik aurrera, ELA eta LAB sindikatuen babesarekin. Bi dira, oinarrian, kale-garbitzaileen eskaera nagusiak 2026ko urtera begira: alde batetik, **egutegi duina**; horretarako, eguneroko lan jarduna 7:25 ordukoa izatea eta atsedeen egunak, aldiro 2 egun baino gehiagokoak izatea. Eta, bestetik, **plantilla handitzea** –2 peoi gidari gehiago izatea, langile kopurua 10etik 12ra igoz–; horrela, makinaria erabiltzeko aukera egongo litzateke eta zerbitzu minimoak errazago beteko lirateke.

"Gaur egun duten lan-egutegiarekin, gainera udal langileek baino 12-13 egun gehiago etorri behar izaten dugu lanera", azaldu dute kale-garbitzaileek. Gainera, betetzen dituzten lan-zikloek –asteburu askotan lana daukate eta astean zehar 2 eguneko atsedena izaten dute– familiarekin egoteko edo bizitza soziala egiteko zailtasunak sortzen dizkiete. "Gainera, aurten norberaren arazoetarako egunak (Udalhitz egunak) asteburuetan hartzea ukatu zaigu, zerbitzuaren beharren argudiopean".

Lantaldea handitzea ere beharrezko ikusten dute kale-garbitzaileek. "Jende falta egoten da askotan, eta gabezia horren ondorioz makinak (barredora eta kamioia) ezin izaten dira erabili eta lana eskuz egitera behartuta egoten gara". Beraz, lantaldea handitzea –bi peoi gidari kontratatzea– eskatzen dute. Langileek adierazi dutenez, hiru urte daramatzate egutegia egokitzea eskatzen, baina Udalak ez ditu aintzat hartu, eta udatik hona gauzak okertu egin dira.

UDAL GOBERNUAREN JARRERA

Udal gobernu taldeak adierazi duenez, buru-belarri ari da kale-garbitzaileen auziari irtenbidea emateko lanean, eta mahai ganean jarri dituzten konpromisoak ere jakitera eman ditu: 1. Kale-garbitzaileen eguneko lan jarduna luzatzea, helburua izanik atsedeen egun gehiago izatea; 2. Lau peoi-gidari plantilla bermatzea; eta 3. 'Udalhitz egunak' asteburuetan ere hartu ahal izateko baldintzak sortzea.

Helburu horiek bermatuko dituen eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarria izango den lan egutegi berria lantzen ari dela azaldu du udal gobernuak. "Konpromisoa hartzen dugu urriaren 8an lan egutegiaren proposamen bat negoziazio mahaian aurkezteko. Ondoren, ekarpenak jasotzeko tarte bat irekiko dugu, eta jasotako proposamen guztiak banan-banan aztertuko ditugu. Era berean, negoziazio-prozesuarekin jarraitzeko prestutasun osoa adierazten dugu". 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera lan egutegi berria martxan jartzen denean, azterketa bat egitea proposatzen du gobernu taldeak, bi helburu izango dituen: 1. Zerbitzuaren azterketa tekniko bat egitea; eta 2. Negoziazio-prozesuan adostutako helburuak betetzen ari direla ebaluatzea.

Kale-garbitzaileek konpromiso horien irakurketa "gazi-gozoa" egin dutela adierazi dute. "Begi onez ikusten dugu peoi-gidari kopurua 2tik 4ra igotzea, horrek zerbitzuaren behar eta kalitatea hobetzea ekarriko baitu. Norberaren gaietarako baimenak asteburuetan hartzeko baldintzak sortzea ere begi onez ikusten dugu. Baina langile kopurua dagoenetan uzteak gaur egun duten arazo larri bati irtenbiderik ez bilatzea dakarrela uste dute, sarritan behar baino langile gutxiago izaten baitira zerbitzuan. Gainera, lan jardunaren luzatzea erdizka gelditzen da, igande eta jai egunetan lehengotan jarraitzen dugulako".

Greba aldiko zerbitzu minimoen harira, jai egunetan plantillaren %75 egotea eskatu zuen Udalak, baina Jaurilaritzak %100a egotea ebatzi du jai egunetarako, eta %25 gainerakoetan.



Mindfulness eta erlaxazioa

Tailer zikloa dohainik
Oñatin, Iturrigorri
Elkarlan-ek eta
Udalak antolatuta

'Ez galdu aukera. Hartu zure osasunaren gidaritza'

Erritmo azkarrak, hiperkonektibitateak eta produktibitate eskakizun etengabeak markatutako gizarte batean bizi gara. Ondorioz, estresa, antsietatea eta akidura emozionala pertsona askoren ohiko lankide bihurtu dira, eta haien ongizate fisiko eta mentalari ez ezik, harremanei, lanari eta orainaz gozatzeko gaitasunari ere eragiten die.

Zurrumbilo horren erdian, gero eta jende gehiago ari da etenaldi, birkonexio eta oreka espazioen bila, eta horretarako tresna boteretsuak dira **mindfulnessa** eta **erlaxazioa**, arreta osoa lantzeko, estresa murrizteko eta barruko lasaitasuna berreskuratzeko.

Horregatik, Oñatiko udalak eta Iturrigorri Elkarlan elkarteak tailer zikloa antolatu dute aurten ere, beren buruarekin birkonektatu eta bizi-kalitatea hobetu nahi duten herritar guztiei irekia. Tailerrak dohainik dira, baina izena eman behar da.

• **EGUNAK:** Azaroak 4, 11, 18 eta 25. Abenduak 2 eta 9

• **ORDUA:** 18:30-20:00

• **TOKIA:** Euskaldun Berria gela (Bidebarrieta kalea, 18)

• **IZEN-EMATEA:** 687 752 842
maribelpachecos@gmail.com



>> MARTXAN GAUDE<<

Ikasturteari hasiera eman genion irailaren 17ko bilera orokorrean. 20 etxekide elkartu ginen Etxiaren irekiera prestatzeko gogo eta ilusioarekin.

Emakumion Etxiak ikasturte berezia du aurretik: etxiaren obrak ondo bidean, neguan amaituko dira lanak eta udaberrian zabalduko ditu bere ateak.

ETXIAREN IREKIERA PRESTATZEN

Nola egingo dugu? Hiru solairuko etxiari bitzta emateko, beharrezkoak izango dira bai udalaren, baita herriko emakumeen parte hartzea ere. Izan ere, Etxiari buruzko erabakiak modu partekatuan hartu nahi ditugu: udalaren eta etxekideen artean adostutako proiektua izan nahi du Emakumion Etxiak.



Etxia eraikitzeko **lan-taldeetan** bilduko gara aurten ere:

- Etxiaren izena eta iruditegia landuko dute **Talaiakideak**
- Etxiaren eta herritarren arteko zubi-lana egiten dute **Zubigileak**
- Etxekideen arteko harremanak zainduko dituzte **Jostunak**
- Udaberriko egitaraua landuko dute **Programatzaileak**
- Azaroak 25ean, martxoak 8an eta topaguneetan ekintzak egingo dituzte **Saltserak**

Lan-taldeetan parte hartzeko gonbitea egiten dizuegu herriko emakumeei. Askotariko esku eta begiradak behar ditugu proiektu irekia, anitza eta publikoa sortzeko.

Bilerak noiz izango diren jakin nahi izanez gero, harpidetu zaitez!

HARPIDETU ZAITEZ

Topagune, bilera edota ekintzen inguruko informazioa jaso nahi izanez gero, harpidetu zaitez gure kanalean.

- Watsappez 688 785 247
- Emaillez berdintasuna@onati.eus
- Instagram [@emakumionetxia](https://www.instagram.com/emakumionetxia)

Informazio guztia: www.onati.eus

Izan parte!

▲
Ondo bidean, neguan
amaituko dira lanak
eta udaberrian
zabalduko ditu ateak
Emakumion Etxiak



JABETZE ESKOLA

2025-2026 ikasturtea

80 emakumek eman dute izena

Oraingoz 80 emakumek eman dute izena Jabetze Eskolaren baitan antolatu diren ikastaro ezberdinetan parte hartzeko, eta aurrera egingo dute guztiek. Hala ere, plaza libreak daude oraindik ondorengo ikastaroetan:

PLAZA LIBREAK

- Dolua eta eraldaketa ikuspegi feministatik.
- Emakumeak mugimenduan.
- Menopausia bizigarria.
- Gure baratzan burujabe.
- Feminismoaren ertzetatik.
- Amatasunean bidelagun.

Izena emateko epea **urriaren 5era arte** luzatu da. Informazio gehiago, udaleko Berdintasun sailean: 943780411 (147) / berdintasuna@onati.eus.

► IKASTAROA

Dolua eta eraldaketa ikuspegi feministatik



Emakumeok eskubidea dugu mina sentitu eta adierazteko, kanpo epai eta espektatibarik gabe. Bizitzako zenbait unetan gertatzen diren galerak aitortu eta onartzea resiliencia ariketa bat da. Dolua ez da ahultasun bat, indar eraldatzaile bat da, emakumeei euren bizitzaren jabe izateko gaitasuna ematen diena. Ikastaro honetan dolua bizitzeko gako feministak emango dira eta ahizpatasuna osatzeko tresna gako gisa landuko da. Elkarri eutsiko diogu, eraldaketan.

- Hizkuntza: Gaztelania
- Irakaslea: Marta Madina
- Datak: Astearteak. Urriaren 13tik otsailaren 24ra. Bi astean behin
- Ordutegia: 17:00-19:00

► SOLASALDI ZIKLOA

Amatasuna ikuspegi feministatik lantzeko



**Hitzaldi ziklo
hau herritar
guztiei irekia da**

"Amatasuna kontraesanez eta anibalentziaz beteriko bizipena izan ohi da. Espektatibek eta ama perfektua izatearen nahiak errealitatearekin talka bortitza sor dezakete. Amatasunera feminismitik heltzean bizipenak talka egiten dute maiz espero genituen egoerekin. Solasaldi hauetan amatasunaren arantzak ikuspegi kritikotik landuko dira, ahalduntze bidean gakoak eta tresnak eskainiz".

- **GURASOEN ARTEKO ERANTZUKIDETASUNA LORTZEKO GAKOAK.** Urriak 7
- **NOLA ERAGITEN GAITU INDARKERIA GINEKO-OBSTETRIKOAK?** Azaroak 4
- **AMATASUNAK ZEHARKATZEN DITUZTEN INDARKERIAK.** Abenduak 2

- Hizlaria: Nahia Alkorta / • Hizkuntza: Euskaraz
- Tokia: San Juan kale, 5 / • Ordutegia 17:00-19:00



Bideko ezbeharrak prebenitzeko sentsibilizazio saioa egingo da Oñatin, adineko pertsonen zuzendua

► Urriaren 17an izango da, Foruen plazan, goiz eta arratsaldean



Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia badu logoa



Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia bere logoa aurkeztu du. Irudiarekin Pertsona Nagusien Mahaiaren aniztasuna adierazi nahi dute (koloreak, irudien elementuak e.a.), elkarlanean ari direla (besotik helduta agertzearen zergatia), eta taldea partaide berriei irekita dagoela azaldu nahian, zirkulua zabalik irudikatu dute.

Aurrerantzean Pertsona Nagusien Mahaia antolatuko dituen ekimenen karteletan, oharretan eta antzekoetan. Oñatiko udalaren logoarekin batera, mahaiaren logoa ere agertuko da, herritarrek errez identifikatu dezaten, helburua, antolatuko dituzten ekintzetara animatu eta nola ez taldean parte hartzeko gonbita luzatzeko asmoz.

► Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuen arabera, 2024an hil ziren oinezkoen %67k 65 urte edo gehiago zituzten, eta biktimak izaten dituzten 10 trafikoko istripuetatik 3tan 65 urte edo gehiagoko pertsonak egoten dira inplikaturik. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak pertsona nagusiei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina jarri du abian, gure herrietako kale eta bideetan gertatzen diren ezbeharrak prebenitzeko, eta urriaren 17an Oñatira iritsiko da '100 ALDIZ BEGIRATU' izenburua duen ekimena.

Bizi-itxaropena luzatuz eta bizi-kalitatea hobetuz doan neurrian, zahartze prozesua gero eta aktiboagoa eta osasuntsuagoa da, eta hori nabaritu egiten da gure kale eta errepideetan. Baina, jakina, trafikoa ere gure bizimoduaren parte da eta, horregatik, garrantzitsua da trafikokoak dakartzan arriskuak ezagutzea eta jabetzea, eta horixe da kanpaina honen helburu nagusia. Hauxe Oñatirako antolatu den egitaraua:

EGITARAUA

Urriak 17 / ostirala

► JARDUERAK KALEAN

- Foruen enparantzan
- 11:00 - 14:00
- 16:30 - 19:30

► SAIO PARTEHARTZAILEA

- Santa Ana antzokia
 - 17:00 - 18:30
- (Izen-ematea eta informazioa: Lagun Lekun eta Pake Lekun)

► UMOREZKO BAKARRIZKETA

- Santa Ana antzokian
 - 18:30
- (Sarrera doan, edukiera bete arte)





Oneko, Oñatiko Energia Komunitatea eratu dute

> 39 bazkide eratzaile elkartu dira irabazi asmorik gabeko kooperatiba berri hau sortzeko

> Behin kooperatiba sortuta, Oneko Energia Komunitatea proiektu zehatzak lantzen joango da

Irailaren 3an burutu zen **ONEKO** Oñatiko Energia Komunitatea, Koop. Sozietatearen eratze batzarra. Bertan, 39 bazkide eratzaileak elkartu ziren irabazi asmorik gabeko kooperatiba berri hau sortzeko. Oñatin Energia Komunitate bat sortzeko motibazioa, orain arte egindako bidea eta etorkizunera begira lehenengo urratsak zeintzuk izango diren aipatu zituzten. Horretarako, inguruko herrietan ibilbide handiagoa duten komunitate energetikoak daude, eta hauek egin duten bideaz baliatzeko asmoaz hitz egin zuten. Lehenik eta behin beste toki batzuetan ondo funtzionatu duten formulak erabili, eta hortik ikasiaz bide propioa garatzen joateko.

Behin kooperatiba sortuta, Oneko Energia Komunitatea proiektu zehatzak lantzen joango da. Proiektu hauetara batzeko informazioa zabaltzen joango dira aurrera egin ahala eta bazkide kanpainak egingo dira. Hala ere, norbait gehiago jakiteko interesa izango balu, www.onatiek.eus webgunean aurkitu dezake informazio gehiago eta bertan aurkituko du baita ere beraiekin harremanetan jartzeko bidea.




Gehiago jakin nahi izanez gero: www.onatiek.eus



36. Master ikastaroa abian da Lege Soziologia Institutoan

Irailaren 22an hasi zen ofizialki Oñatiko Lege Soziologiako Erakundearen nazioarteko masterra, Joxerramon Bengoetxea EHUKo errektorea, Izaro Elorza alkatea eta Camilo Umaña LSNEko zuzendari zientifikoa bertan zirela. Aurten, Alemania, Txina, Irlanda, Kolonbia, Frantzia, Suedia, Erresuma Batua, Madril, Bilbao eta Gasteizeko hamaika ikaslek egingo dute ikasturte osoa. Elorza alkateak ongi-etorria egin zien eta eskerrak eman zizkien Oñati aukeratu dutelako eta gure herriaren izena munduan zabaltzen dutelako. Oñatiko egonaldia oparoa izatea opa zien, bai akademikoki eta baita sozialki eta kulturaliki ere.

Antzinako lanbideei buruzko liburua idatzi du Jose Antonio Azpiatzuk



Oficios tradicionales en la historia de Oñati y su entorno liburua plazaratu du Jose Antonio Azpiatzuk historialariak, *Artixa* kultur elkartearen laguntzarekin. Burnigintza eta ola-auspoak, galdaragintza, banastaginak, zapatagileak, iltzezinak, kutxa eta gariarkak, argia egiteko tresnak, armak...Industriaurreko

garaian gure arbasoek zituzten lanbideen ezaugarriak jorratu ditu Azpiatzuk oraingoan. Herriko liburu dendetan eskura daiteke 20 eurotan.

'Bestaldetik etorriak' argazki-liburua



"San Pedrori bizarrak ikusi, hil hurren egon, eta berriz ere bueltan etorri diren oñatiarren testigantza eta argazkiz osatutako lana da". Halaxe laburbiltzen du Joxefe Diaz de Tuestak **Bestaldetik etorriak** lana. Istripuren bat edo gaixotasun larriren bat izan ondoren, bizirik atera diren 19 herritarren

bizipenak eta argazkiak bildu ditu. Urriaren 17an aurkeztuko du udal liburutegian (19:00).



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna eta Gaztelekua (Araserixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Inshallah, Anas

Iñaki Idigoras Igartua eta Jexus Agirresarobe

Abuztua da. Iratxen bildu gara Jurramendi aigotzeko. Gudarienetik baino, gurutzeen bidetik (via crucis) ekiteko gomendatu digute. Berbagai, Gazako egoera. Israelek, genozidioa gauzatzeaz gain, honen kontaketa ere ixilarazi nahi du: ia 300 kazetari erail ditu, Al Jazeera Anas al-Sharif tartean. Bazekien Anasek bere herriaren alde egiteak zekarkion arriskuaz; eraila zenerako, idatzia zeukan mezua. Sarri aipatzen du Allah. Fededuna zen Anas.

Jurramendi gailurrera iristen ari gara. Jesukristo beltz bat dago milaka karlisten bilgune izan zen mendian. Fededunak ziren; Zumalakarregi buru, herria defendatu zuten; Askok bizitza galdu ere bai. Anasek bezala. Bandera palestinarra konplexurik gabe haizatzen dugu. Beren izaera erlijiosoa ez da aitzaki. Beren gizarte eredu ere ez. Herri baten biziraupena dago jokoan. Iruditzen zaigu baina, bestelako betaurreko begiratzen diogula geure erresistentzia indarrari: independentzia garaietako Nafarroako Erresuma defendatu zutenak, monarkikoak zirela; Konkistatuak izan ondorengoak berri: Zumalakarregi, fededuna; Arana, arrazista; Abertzaleok, atzerakoiak; Orain berri, euskaltzaleok burges pribilegiatuak omen. Zenbat "baina", gure borrokari!

Zenbateraino asimilatuak gauden! Nondik datoz "baina" guzti horiek? Ideologikoki, ba ote da gure askapen borrokarako, espainiar zein frantziar ezkerreko intelektual errepublikarra baino iturri pozoitsuagorik?

Inshallah, Anas, palestinar belaunaldi berriek zuen borrokaren funtsa ulertu eta bere egingo duten! Israelek zabalduko duen pozoina irentsi gabe, zuen borrokari "baina"-rik bilatu gabe. Esana digu geuri ere Lauaxetak, eraila izan aurretik: dana emon bihar jako maite dan askatasunari.

Berriki espainiar Vuelta gelditu dugu Bilbon, palestinarrei elkartasunez. Noiztik ez dugu baina, Ebron geldiarazi? Urriak 4an manifestazio nazionala antolatu dute Palestinarekin elkartasunakoek. Bandera nazionalik eramango al dugu, palestinarrei

elkartasuna adierazteko? Herri zapalduetik, elkartasuna herri zapalduari: Nabarratik, Palestinara.

Abuztura bueltatuz, nolatan baztertu genuen gudarien bidea, via crucis-a egiteko?

» OHAR ETA DEIALDIAK «



Oñatiko MUS txapelketa

Irailaren 20an jokatu zen San Migeletako XVI. Mus txapelketa, 53 bikoteren parte hartzearekin. Txapelak eta 800€ko saria Joxe Migel eta Joxe Manuel leitzarrek irabazi zuten. Hirugarren saria (200€, gazta eta ardoa) eta lehen oñatiarra (200€) Aitor Markinez eta Aitor Ugartek eraman zuten.

Herri Egunean autobusa egongo da Arantzazura

Herri Egunean Herribusak Oñati eta Arantzazu arteko zerbitzua egingo du. Oñatitik orduro irtengo da autobusa; 12:30 eta 18:30ak artean. Arantzazutik behera, 13:00etan lehena eta 19:00etan azkena. Astelehenean (Errosarixo Bixamona) ez da zerbitzurik egingo.

Desfibriladorea ipini dute Larrain Gain elkarteak

Larrain-Gain elkartea kardio gune babestua izatera pasa da. Abuztuan jarri zuten desfibriladorea, soziedadeko sarreran. Horrenbestez, erantzukizun soziala erakusten du Larrain Gainek, bihotzeko larrialdien prebentzioan aurrerapausoa emanez.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Txikitasunean haundi

Martin Jauregialzo Arregi

A itortu behar dut azkenaldi honetan Palestinak min emateaz gain loa ere kentzen didala. Gaur jai eguna da, lasai egoteko eguna, baina bonbardaketa baten ondorioz anputatua izan den ume baten garrasiekin gosaldut. Goizeko paseoan X sareak bere dendan bizirik erre duten agure baten irudiarekin astindu nau eta eguerdian bermuta kontrako eztarritik joan zait, instagramen, leherketa baten ondorioz, suntsitutako eskola baten hondamenak ikusi ondoren. Gaur igandea da eta familia-bazkaria izan dut, txuleta eta kafearen artean, jatetxeko telebistan, Mohamed Zakariya Ayyoub al-Matouq, umearen irudiak, nire gizaki izaeraz lotsatu egin nau (bai, palestinarrek ere izena eta abizena dute). Gosetearen ondorioz bere bizkarrezur eta saiheitsak ia ihes egiten dute bere azalek.

Hala ere, arratsaldean dator okerrena. Aholkulari, teknokrata eta politikari oportunisten "armada" batek lasai egoteko eskatzen dit, euskal enpresek ez dutela sarraski honekin kolaboratzen ziurtatzen didate, lurraldean ikerketa eta proiektu ekonomikoak baino ez dituztela egiten diote, gure herrirako ehunka lanpostu eta aberastasuna sortzen dutela azpimarratuz.

Di-da batean, inongo lotsarik gabe azken hilabete hauetan dozenaka GKE, erakunde, txosten guztiek esaten dutena gezurtatu dute. Beraientzat, Amnesty International, Euskal Herriko Unibertsitatea edo Francesca Albanese, NBEko kontalariak, egindako ikerketek ez dute ezertarako balio. Gai honen inguruan idatzi den literatura politikoak aspaldik ondorioztatu zuen genozidio bat zutabe militarretan, politiko-kulturalean eta ekonomikoan oinarritzen dela, baina bost axola.

Gauean, dena galduta dagoela dirudienean, irratian entzun dut nola Saioa Alkaiza bertsolariak uko egin dion 10.000 euroko lgartza bekari. CAF enpresak finantzatzen du sari hau eta enpresa honek Israelgo gobernuaren genozidio-estrategiari laguntzen omen dio eta bertsolariak ez du "zuritze kultural" honen partaide izan. Saioaren duintasunak hunkitzen nau, oheratzen naizen bitartean bere keinu honekin interpelatuta sentitzen naiz, nik ezin diot sari bati uko egin, baina zerbait egin dezakedala uste dut eta aspaldiko partez lo lasai egingo dudanean, ezin dut ahaztu Eduardo Galianoren aipu hau: **"jende txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake."**

Has gaitzen edo jarrai dezagun ba bakearen alde eragiten gutariko bakoitzari dagokigun esparruetan.

'Gardentasuna eta koherentzia: Oñatiko EH Bilduren Udal Gobernuan falta dena'

Oñatiko EAJ-PNV

Azken hilabeteetan, hainbat epai judizialek errealitate bat jarri aude mahai gainean: Oñatin, EH Bilduren udal gobernuak oinarritzko lan eskubideak urratu ditu.

2024ko maiatzean, justiziak EH Bilduk gobernatzen duen udal-gobernua kondenatu zuen aurretik zuen enplegu finkoa Udalean sartzeko utzi zuen langile bat bidegabeki kaleratzeagatik. Izan ere, lanean hasi eta handik hilabete eskasera kaleratu zuten langilea. Justiziak arrazoia eman zion eta Udala kondenatu zuen hura berriz onartzera edo 30.000 euroko kalte-ordaina ematera.

2025eko uztaillean, Oñatiko Udala, EH Bilduk gobernatua, bi epaien bidez zigortu dute mantentze-arloko langile baten osotasun fisikorako eskubidea urratzeagatik, udalak ez dizkiolako baldintza seguruak bermatzen.

Bi epai desberdin, ondorio argi bat: lan-kudeaketa eskasa eta laneko prebentzio-politika eza.

Epai horien aurrean, EH Bilduren udal-gobernuak, akatsak onartu beharrean, epaitegiei eta beraiek kontratatutako prebentzio-enpresari leporatu die errua. Jarrera hori arduragabea izateaz gain, oso kezagarria ere bada: lan-eskubideak babestu beharko lituzkeenak zalanztan jartzen dituelako, eta justiziak eskubide horiek betetzea eskatzen duenean, erantzukizuna besteei leporatzen dielako. Langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeko betebeharra udalarena denean.

Ahots kritiko bakanetako bat EAJ-PNVren udal taldearena izan zen. Talde horrek lehen kasuan kudeaketaren opakutasuna salatu zuen, baita gardentasun falta eta EH Bilduren diskurtsoaren eta bere praktika instituzionalaren arteko erabateko inkoherentzia ere. Talde jeltzaleak gogorarazi zuen, benetan langileria defendatzen bada, bere ondoan egon behar dela eta horrek akatsak onartzea eta zuzentzea eskatzen duela eta ez errua besteei leporatzea.

Halaber, sindikatu nagusien jarrera ere deigarria da. Izan ere, kolore politikoa bestelakoa denean, azkar eta irmo mobilizatu izan dira antzeko egoeren aurrean. Baina Oñatin, EH Bildu da agintean dagoena, eta oraingoz ez da erreakzio publiko esanguratsurik egon: ez kontzentrazioarik, ez manifestaziorik, nahiz eta gertatutakoak oinarritzko eskubideei eragiten dien. Hemen EH Bilduk gobernatzen duelako badirudi denak balio duela. Eta hau ez da alderdien kontua: Udalean egunez egun lan egiten duten pertsonen kontua da, eta pertsona horiek errespetua, duintasuna eta segurtasuna merezi dituzte.

Eraldaketa erreal bat behar dugu Oñatiko Udal kudeaketan: koherentzia handiagoa, gardentasun gehiago eta, batez ere, Udalaren eguneroko funtzio-namendua posible egiten dutenekiko errespetu handiagoa.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> TXALOKA UDAL LUDOTEKA <<

"Herriko haur guztien ludoteka izatea nahi dugu"

LUDOTEKA BERRIAREN ERRONKAK

Ludoteka herrira zabaldu nahi dugu. Haur eta hauen familien erreferente izan. Herriko haur guztien ludoteka izatea nahi dugu. Komunitatera irekita dagoen zerbitzua. Erabilera ezberdinak egon daitezke, egongo dira; egunero datorrena, astean behin, ekintza berezitarako bakarrik.... haur/familia bakoitzari hobekien dagokiona.

HARTZAILEAK

HH3-LH3 bitarteko haurrak. Zeharka, hauen familiak.

JOLASA

Ludoteka, haurren aisialdia gozatzeko eta, aldi berean, hezteko espazio bat da, non **jolasa** funtsezko tresna pedagogikoa izango den. Hau izango da, haurarekin batuko gaituena; Jolasetik eraikiko dugu harremana eta bertatik, heziketa helburuak landuko ditugu.

Jolas sinbolikoa, antzerkia, musika, dantza, literatura, marrazketa, joskintza, zinema, eskultura, arkitektura, sukaldaritza, psikomotrizitate elementuak. Jolasa. Librea, gidatua, antolatua nahiz sortzailea

Esperientzia eta bizipen esanguratsuen bitartez, haurrak elkarbizitzarako trebatzen dira, hainbat balio barneratuz: autonomia, laguntasuna eta elkarlana, esaterako. Dinamika eta jarduera ezberdinen bidez, haurrak modu naturalean hasten dira balio horiek bereganatzen eta praktikan jartzen.

Zerbitzuko ekimenetan, haurrak dira protagonistak. Ekintzak antolatzerakoan modu aktiboan parte hartuko dute, euren iritzia eta ideak kontutan hartuz.

ORDUTEGI BERRIA

Astelehenetik ostiralera: **16.30-19.30**. Arratsaldea bi txandetan (16:30-18:00 / 18:00-19:30) banatzea da idea, haurrak, adineko edo adin inguruko beste haurrekin



egonda, beraien behar eta gaitasunekin bat egiten duen eskaintza bat izan dezaten, eta **esku-hartzea taldeari egokituagoa** izan dadin.

PROGRAMAZIOA

Azaldu bezala, **haurren beharretan eta eskaeretan oinarritutako** programazioa garatuko da, beren motibazioen, kezken eta ekimenen arabera. **Ludikotasuna eta ekintzen dinamizazioa** aitzakia bezala hartuta eta esperientzia esanguratsuak euskaraz biziko dituzte. Denen gustuak aintzakotzat hartuko dira, eta honen arabera egitaraua moldatuko dugu, neguko zein udaberriko oporraldietan, adinkako eskaintzarekin, partehartzea handitu eta indarra emateko (familientzat ere tailerrak eskainiz), betiere, herriko eragileekin elkarlanean. Hileroko programazioa, ikastetxeen bidez zabalduko genuke lehenik, difusio taldeetatik ondoren.

HEZITZAILE PROFESIONALAK BIDELAGUN

Ludotekako hezitzaileak bidelagun dira, zerbitzu inklusibo eta babeslea eskainiz. Haurrak gidatu eta lagunduko dituzte, bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatuz eta beraien garapena sustatzen duen giro hezitzaile bat eskainiz.

GAZTELEKUKO KUBOKO DIFUSIO TALDEAK

Ikasturte hasierarekin, urtero bezala, Gaztelekuko Kubora datozen LH 3 ko haurren gurasoentzako difusio taldea sortzen gabiltza. Difusio talde honen helburua, Kuboko eta Topalekuko albisteen eta antolatzen ditugun irteera eta ekintzen berri ematea da; astean zehar gutxiago hurbiltzen direnak ere, jakinaren gainean egon daitezten.

Difusio taldean sartzeko, **nahitaezkoa izango da zuen mugikorreko kontaktuetan 658725679 zenbakia** (Kuboa) **gorde eta zuen seme/alabaren izen-abizen eta jaiotza-urtearekin whatsapp** bat bidaltzea.

Keixeta aizkolari handiak Oñatin lortu zuen garaipenaren mendeurrena

Carlos Maiztegi. Arruek gogorarazi digunez, urriaren 5ean beteko da Oñatin jokatu zen aizkolari txapelketa sonatuaren mendeurrena. Azurmendi eta González jaunen ekimenez jokatu zen txapelketa hura 1925eko herriko jaietan. Urriaren 4an, Errosarixo domeka, atariko jokatu zen —Kortaberri mendararra nagusitu zen—, eta biharamunean, urriak 5, arratsaldeko 15:30etan jokatu zen txapelketa nagusia. Orduko kroniketan irakur daitekeenez, 15 aizkolari aritu ziren nor baino nor gehiago desafio hartan, plazako pilotalekua jendez lepo zegoela, eta garai hartako aizkolari izar nagusia zen Jose Aranburu 'Keixeta' gailendu zen, ia bi minutuko aldearekin. Arratsaldeko 6etan egin zen sari banaketa udaletxean: Keixetak 500 pezetako saria eta brodatutako bandera jaso zituen; Arriya azpeitiarrak (250 pzta.) eta Kortaberri mendararrak (150 pzta) osatu zuten podiuma. Azpimarratzekoa, 6. postuan Zurutuza oñatiarra sailkatu zela (50 pzta.).

Garai hartako kroniken arabera, oso arrakastatsuak gertatu ziren urte hartako jaiak, jendetza handia bildu zelarik ekitaldi guztietan, hala pilota partiduetan, nola sokamuturrean, eta baita aipatutako herri kirol jaialdian ere. Madrilgo egunkari ezagun bateko gehigarriak ere luze eta zabal jaso zuen garai hartan kirol honetako izar handia zen José Aranburu 'Keixeta'ren balentriak.

1920ko hamarkadako aizkolari ospetsuenetakoa izan zen Jose Aranburu Aramendi. Urrestillan (Azpeitia) sortu zen 1881ean, eta familiaren Keixeta baserriaren izenez egin ezaguna. Mutikotatik egurgintzan aritu bazen ere, lehenengo apustua 1912an jokatu zuen, 31 urte zituela. Proba mistoa izan zen: 54 hazbeteko 20 enbor eta 14 kilometro korrika.

Hurrengo urteetan erakustaldi batzuk baino ez zituen egin, eta 1924an berragertu zen eszenan, 43 urte zituela, punta-puntan zebilen Chiquito de Ayaren aurkako desafioan, Zarautzen. Gaixo zegoen arren, garaipena lortu zuen eta hor hasi zen Keixeta-ren arrakastaz beteriko aldia. 1925ean aizkolari ugari jarritako erronkei egin zien aurre, eta 31 desafio eta txapelketa (tartean Oñatikoa) irabazi zituen jarraian. Ospe handia lortu zuen eta herri guztietatik deitzen zioten erakustaldiak egitera. Oso maitatua izan zen, gizon zintzoa eta umila zelako, batez ere.

Tamalez, 1927an lan-istripu larria izan zuen. Mendiko lanetan ari zela, zerra mekaniko batek ezkerreko hiru hatz moztu zizkion. Hala ere, urte hartan bertan berragertu zen plazetan, ezkerreko eskuan larruzko eskularru bat jarrita, eta modu duinean lehiatu zen 1931ra arte; 1928ko txapelketan 3. sailkatu zen, eta hurrengo urtean 2. 1931ko txapelketan, 50 urterekin, azkenengo sailkatu zen eta hor ikusi zuen erretiratzeko unea zela. 1962an zendu zen. •



Madrilgo egunkarietan ere oihartzun handia izan zuen 'Keixeta'-k 1925eko urriaren 5ean, Oñatin irabazitako txapelketak



Oñatik txapelketa irabazi ostean, Keixetak 500 pezetako saria eta goiko argazkiko brodatutako bandera jaso zuen Keixeta-k



Eguraldi ederra lagun, oso arrakastatsuak gertatu omen ziren urte hatako jaiak. Egitarauan ikus daitekeenez, Toribio Altzagak zuzendutako antzerkia —Teatro Aloña Mendi berrian—, Bergarako musika bandaren emanaldia, Iruñeko Oroquieta Etxe famatuaren piroteknia ikuskizuna, sokamuturra, erromeriak, ganadu lehiaketa, eta aipatutako herri kirol jaialdia egon ziren, besteak beste.,

GTWSko final handian lehiatuko da Malen Osa, podiuma helburu

> Urriaren 10etik 12ra jokatu dira finalak Trentinoko (Italia) Ledro lakuaren inguruan > Une honetan sailkapen orokorreko 4. tokian dago oñatiarra



Uztailean Korsikan
jokatutako lasterketan bigarren
sailkatu zen Malen Osa

Denboraldiko hitzordu nagusia iritsi da Malen Osa, Solomon taldeko korrikalari entzat. Munduko trail lasterkaririk onenen aurka lehiatuko da *Golden Trail World Series*-eko (GTWS) final nagusian. Oraingo, sailkapen orokorreko laugarren postuan dago oñatiarra, baina podiumeko postuak esku-eskura ditu, eta kontutan hartuta, gainera, finaleko lasterketan puntuazio bikoitza dagoela (400 puntu guztira), edozer

gerta daiteke.

Urriaren 10etik 12ra jokatu da GTWSeko final handia Italian, Trentinoko Ledro laku ikusgarriaren inguruan. Ohi bezala, lasterkariek bi proba izango dituzte. Lehenengoa (urriak 10) atariko edo prologo motza; atletak banan-banan abiatuko dira erlojupeko formatuan, eta 6,9km.-ko ibilbidea (+550m.) osatu beharko dute. Proba honetan 100 puntu banatzen dira.



BI LASTERKETA
Urriaren 10ean
erlojupeko
lasterketa egingo
dute (6,9km /
+550m) banan-
banan abiatuta.
Hurrengo egunean
lasterketa nagusia
(22km. / +1800)
jokatuko da.

SAILKAPENA
Une honetan
GTWS-eko
sailkapen
orokorreko 4.
tokian dago
oñatiarra, baina
aurreneko
bosten artean 50
punturen alde
baino ez dago, eta
kontutan hartuta
finalean 400
puntu daudela
jokoan, edozer
gerta daiteke

Hurrengo egunean, urriak 11, finaleko lasterketa nagusia jokatu da (22km / +1.800m). Proba honetan 300 puntu lortuko ditu irabazleak. Badaki erronka oso zaila dela, baina baikor dago korrikalari oñatiarra. "Uztailean egon nintzen ibilbidea ikusten eta uste dut nire ezaugarrietarako aproposa dela. Igoera oso gogorra eta oso luzea dauka hasieran, gero krestario tekniko bat goialdean, ondoren jaitsiera piko eta teknikoa, eta azken lau kilometroak ere nahiko gogorrak dira, aldats dezente daude eta".

SAILKAPEN OROKORRA ESTU
GTWS barruan 8 lasterketa puntuagarri jokatu dira urtean zehar, eta hiru emaitza onenak gehi final nagusia hartzen dira kontuan sailkapen orokorrerako. Malen Osa 3. sailkatu zen Japonian, 3. Zegama-Aizkorri, eta 2. Austrian. Txinako lasterketan ere atera zen, baina ez zuen amaitzerik izan. Une honetan sailkapeneko 4. postuan dago 540 punturekin, baina lehen bost sailkatuen artean 50 puntuko alde baino ez dago. Beraz, edozer gerta daiteke final nagusian. Podiumean sartzea du amets oñatiarrak.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etkez-etxeko tratamendua:

- Neuroerreabilitazioa
- Heldu nagusiak
- Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua

T. 609 589 843 · miren.fisioterapia@gmail.com

Eskerrik asko, Oñati

OÑATIKO MENDI MARTXA

Aurten 10 urte bete ditu Oñati-tiko mendi martxak, eta, urteurrenarekin batera, OMM osatzen dugun guzti-guztiok ilusioz ekin genion urteko egi-tarau oparoa antolatzeari.

Ez dira gutxi izan urtean zehar aurrera eramandako ekimenak, hala nola, Pou anaien hitzaldia, Felipe Uriarteren hiztegi aurkezpena, haurrentzako Piripuien kontaketa, Zazpi dokumentala edo Eñaut Izagirre glaziologoaren hitzaldia.

Egitarau hau borobiltzeko urteurreneko ekintza nagusia Irailaren 13an ospatu genuen mendi martxarekin hasi eta urteurreneko festarekin bukatuz. Argi dago herritar guzti-guztion inplikazioak ahalbidetu zuela ekimena behar bezala ospatzea eta hemendik gure eskerrik zintzoenak hau aurrera eramaten lagundu duten eragile eta norbanako bakoitzari. Ezin ahaztu ere hainbat urtetan laguntzaile izan eta jada gure artean ez dauden Tiago eta Sagas, eskerrik asko zuei ere!

Lehen urtean gudan sinetsi eta urtez urte babes berdina edo handiagoa ematen jarraitu du-zuen eta gure proiektu hone-tan sinetsi eta zintzoki lagundu gaituzten enpresa, denda eta erakunde guztiei ere eskerrak eman nahi genizkieke: Ulma, Natra, Urrutxi, Oier fisioterapia, Iturri taberna, BM supermerkatua, Gara egunkaria, Sustrai Fruta denda, Muñoz margoak, Amets Berezaio, Aloña mendi taberna, Aneto, Ezpeleta, Fagor industrial, Betik, Kaiku, Lana, Coinbroker, Txokolateixia, Irizar okindegia, Eskolatxo okindegia eta Oñatiko udala.

Labur-labur esanda: ESKE-RRIK ASKO, OÑATI.

Besterik gabe, orain lozorroan sartu eta atseden txiki bat hartuko dugu datorren urtekoari indarrez ekin eta beste horrenbeste urtez aurrera egiteko. Gorde data 2025-09-18.

Mendi irteera Valderejo natur parkera / URRIAK 19

Aloña Mendik urrirako antolatu duen mendi ibilaldia Valdegobia haranean izango da, Burgosko mugan dagoen natur parkean barrena. Lalastra herrian abiatu, Vallegrull (1.225m) mendia igo, eta Purón ibaiaren haitzartetik pasa ondoren, Herranen amaituko da ibilaldia (16km./+550m/5-6 ordu inguru). Ez du zailtasunik. Irteera urriaren 19an izango da, eta izen-ematea urriaren 9tik 16ra izango da alonamendi.mendi@gmail.com helbidean,



Purón ibaiaren haitzartea

Guridi-Aizpurua eta Ugarte-Azkarate txapeldun



Partida estu eta ederra jokatu ostean, June Guridi eta Oihane Aizpurua nagusitu ziren 18-17 Ainhoa Zumalde eta Nireia Mugarzaren aurka, herriko pilota txapelketako finalean. Mutiletan, Joseba eta Auritz Larre anaientzat izan ziren txapelak (18-8) Ander Biain eta Xabi Barrena mendean hartu ondoren.

IÑIGO ERLE FINALERA. Iñigo Erle oñatiarrak, Apezetxea goizuetarra lagun duela, Mikel Deunaren txapelketako finala jokatuko du urriaren 5ean Zubikoan, 17:00etatik aurrera, Galartza-Sotil larraundarren aurka. Erleren 5. finala izango da, eta hirugarren txapela du helburu.



Bola-jokua eta plater tiroa



Kurtze Baltz elkarteak antolatutako San Migeletako bolo txapelketan Gorka Zelaia nagusitu da aurten 6 txirlo bota-ta. Ander Biainek (3) eta Markel Txintxurretak (2) osatu dute podiuma. Denera 79 bolarik parte hartu dute.

Bestalde, Pago Usok antolatutako plater tiroan 24 lagunek parte hartu zuten. Aurreneko tiraldian 21na plater jo zuten Jose Miguel Etxeberriak, Iñaki Urtazak eta Gotzon Arangurenak, eta desberdinketan Aranguren nagusitu zen, 23 jota.




Nola erabili makinak gimnasioan

URRIAK II

Urriaren 11n, larunbata, indar makinak egoki erabiltzen ikasteko saio teoriko-praktikoa egingo da kiroldegiko fitness gelan. Hiru txanda egongo dira: (1) 9:30-10:15, (2) 10:30-11:15 eta (3) 11:30-12:15. Izen-ematea: fitness gelan eta kiroldegiko harreran.

Iban Zaldia idazlea eta Julen Ribas ilustratzailearekin berbetan, Liburutegien Eguna ospatzeko

Elkarrekin idatzitako **Botere handi batek** eta **Azken garaipena** komiki arrakastatsuez jardungo dute, urriaren 14an, liburutegian, 18:00etan



Julen Ribas, ilustratzailea, eta Iban Zaldia, idazlea (Jon Urbe/FOKU)

Urtero bezala, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatuko da urriaren 24an, eta horren harira, bi ekitaldi berezi antolatu ditu udal liburutegiak: alde batetik, **Idazleekin Berbetan** solasaldia, Iban Zaldia eta Julen Ribas komikigileekin, eta bestetik, hurrei zuzendutako **Mamuki** lantegia (ipuin kontaketa eta kareta tailerra).

Horiez gain, udal liburutegian dau-den lau **Tertulixan**-Irakurle Taldeak eta **Idazketa Lantegia** ere jarriko dira martxan urrian zehar, eta, gainera, **'Aurorita beti polita'**k gidatutako bisita bereziak ere egingo dira liburutegira, 4 urteko haur guztiek berau ezagutzeko aukera izan dezaten.

IDAZLEEKIN BERBETAN

Urriaren 14an Iban Zaldia (Donostia, 1966) idazlea, eta Julen Ribas (Arrasate, 1981) ilustratzailea, bertatik

bertara ezagutzeko aukera paregabea izango dugu. Biek ala biek genero eta diziplina ezberdinak landu izan dituzte, baina, oraingoan, elkarrekin idatzitako **Botere handi batek** eta **Azken garaipena** komiki liburuen inguruan hitz egingo dute.

'Idazleekin Berbetan' solasaldia herritar guztiei irekia izango da

Botere handi batek (Ikastolen Elkar-tea, 2024) *Xabiroi* komiki aldizkariaren hemezortzigarren albuma da eta 1970-1990 hamarkadetako euskal gatazkan girotuta dago. Espainiako armadak laborategi sekretu bat du Bardean (Nafarroa), eta bertan superboteredun gizakiak lortu nahi dituzte.

Horretarako, esperimentuak egiten ari dira, eta Franco hil osteko nahas-mahas politiko eta sozialean, laborategitik ihes egiten dute supergizaki horietako batzuek eta, denborarekin, euskal gatazkaren protagonista bihurtuko dira.

Azken garaipena albumak (Ikastolen Elkartea, 2011) zientzia-fikzioa eta genero beltza uztartzen ditu, eta ukronia bat planteatzen du; hau da, historiako gertakari bat aldatu eta horrek eragindako kate-erreakzioan oinarritzen du narrazioa. Nolakoa litzateke gure egoera 2052. urtean, Hitler-ek II. Mundu Gerra irabazi izan balu? Hori da komikiaren planteamendua. Album honek Euskadi Literatura Saria jaso zuen.

Solasaldia udal liburutegian (18:00) izango da, eta interesa duten herritar guztiei irekia izango da.

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

> LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA



Nerea Ariznabarreta eta Maite Rosende, *Mamuki* liburuarekin (ZUZEU)

MAMUKI lantegia


Ipuin kontaketa eta kareta tailerra, 6 urtetik gorako haurrentzat

Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzeko, haurrei (+6 urte) zuzendutako MAMUKI lantegia antolatu du udal liburutegiak. Iaz Etxepare saria irabazi zuen album ilustratua da *Mamuki*, Maite Rosende ilustratzaileak eta Nerea Ariznabarreta idazleak elkarrekin ondutua.

Beldurrari buruzko album umoretsua da *Mamuki*; beldurrei nola aurre egin eta nola gaingitu ikasten laguntzen duena. Gau Beltza da eta mamuek sustoak eman behar dituzte; inguruan ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiaturiko dira hura sendatzen: banpiroa, zontzia, Zakurzahar, Otsoko... Baina alfer-alferrik. Gaixoa! Zer egingo du Mamukik Gau Beltza ospatu ezinik?

Paralelismo eta hitz-jokoetan eraikita dago narrazioa; erritmoa eta errima erabiltzen ditu, eta haurrei oso gertukoa egiten zaie; barrea eragiten du ustez beldurra nagusi den kontakizunean. Azken batean, beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatzen da, gertukoa eta goxoa. Horregatik da bikaina *Mamuki* albuma. Ipuin kontaketa ondoan, kareta tailerra egingo da bertan.

Mamuki lantegia urriaren 30ean izango da, Haur liburutegian (18:00). Izen-ematea, urriaren 20tik aurrera.



ARGAZKILARITZA TAILERRA

Ricardo Cases argazkilariak gidatua



► **Urriaren 17-18-19an, Eltzian, Ilunpetan
argazki taldeak antolatuta**

Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeak tailer berezia antolatu du Ricardo Cases (Orihuela, 1971) kazetari eta argazkilari ezagunaren eskutik.

Sormena aktibatzeko, argazkilaritzaren prozesuekin eta argazkiekin jolasteko, eta, oro har, ondo pasatzeko aukera ederra izango da tailerra. **Autozine** du izenburua ikastaroak, eta helburua izango da bukaeran partaide bakoitzak fanzine bat eginda eramatea.

Argazkigintzan ohikoak diren prozesu sortzaileak partekatzea da helburua: argazkiak egiteko unea, edizioa, diseinua eta argitalpena barne. Argazki-proiektu batek izan ditzakeen irtenbiden adibideak ere erakutsiko dira.

Urriaren 17an (18:00-21:00), 18an (10:00-14:00 eta 16:00-20:00) eta 19an (10:00-14:00) izango da tailerra, Eltzian, eta maila guztietako argazkilariei zuzenduta dago. Prezioa: 90€, urriaren 18 eta 19ko jatorduak barne. Partaideek kamera digital bat, ordenagailu eramangarria edo tableta, eta txartel-irakurgailu bat eraman behar dute. Informazioa eta izen-ematea: ilunpetan@gmail.com, urriaren 14ra arte.



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

>> LITERATURA TXATALAK (VII)

Ezkontza-tratua



1977ko Herri Egunian Makalena alkartiak antolatutako Herri Ezkontzaia. Eguerdixan hasitta pasakallian ibilli ondoren herriko plazan akabo euen. Burdixaren aurretik, Juan Luis Ruiz; eta atzetik, Jabier Altzelai 'Sagasta'. (Argk.: Iñazio Irizar)

 ROBERTO ALTUNA

Jaiegun baten Zabaletako etxeandria Ana Josepa eta Azkarragako Mari Batista jaztetxian bat egindda, hola egin euen berba andra bixak:

- **Ana Josepa:** Zure alabiarekin etorri naiz bidian ... Ondo neska ederra dago bera.
- **Mari Batista:** Gure Mikalla? Bai, horixe! Haren sasoian gu be bagiñan zerbait baiña ...
- **AJ:** Zenbat urte dako?
- **MB:** Datorren ilbaltzian hogeita hiru.
- **AJ:** Ona dírudí.
- **MB:** Oso da ona, etxekoa eta maratza. Ez neuria dalako, baiña eztago bera moduko beste bat Uribarrin.
- **AJ:** Zer ezkon-sari emungo zeunskio?
- **MB:** Ja jai! Horixe da ittauna politta, Ana Josepa.
- **AJ:** Ia ba, neuk be ezkongaxak dakot eta...
- **MB:** Bai, bai, guraso garen aldetik gure umien onari begiratu bihar xaugu eta ... Baiña gurian eztago zuenian beste diru. Mutil on baten biharra bai: aurten be leher egin dogu garixa jotén eta iñaurkiñak ekarten. Bai ba, zahartu egin gara-eta. Gure Antonek be, honezkero, hirurogeita bosten bat urte izango dittu, senar-emazte eta alabatxo bi bakarrik gagoz, eta lanak dira hemen.

- **AJ:** Orduan elitzake gaizki etorriko zuentzako gure Iñaxio Mari.
- **MB:** Ez horixe, ez, Ana Josepa, eta bixok konponduko bagiña...
- **AJ:** Konpondu gatezan! Tira, zenbat emungo xatzue zuen alabiari?
- **MB:** Baiña gure etxerako.
- **AJ:** Bai ba, zuenerako. Zenbat?
- **MB:** Eztakit ba nik, ba. Bostehun dukat-edo.
- **AJ:** Zer dixozu, emakumia. Bostehun dukat Azkarragako alaba zaharrenari? Ikatzagakuak be badako horrenbeste, maizterrak izanda!
- **MB:** Ia ba, bestiak be, ezkonketan danian, zerbait izan biharko dau-eta. Zuek zenbat emungo xatzue mutillari?
- **AJ:** Guk zortzirehun dukat eta bi etxebizitza.
- **MB:** Ezkabiltz ondo, Ana Josepa. Zabaletako mutillak gurako littuke, gutxienaz, milla dukat eta berak ikazkintzaian irabazittakuak, bi etxebizitza, bi behi, hoge bat ardi, burdi bat...
- **AJ:** Ezin konpondu geike, Mari Batista.
- **MB:** Eztozu gura?
- **AJ:** Gura izatiarekin zer dakogu? Milla dukat eta eztakit zenbat ondasun gaiñera emun bihar guk, eta zuek bostehuntxo? Izango dau Iñaxio Marik milla dukatekua, berak zortzirehun eruanda be...
- **MB:** Ezta ba zuendako gauza haundixa milla dukat... Hara, zuek milla eta guk zazpirehun. Gero be zuen mutillori Azkarragara badator, etxian geratuko dira gure puskak. Eztago gehixago zer esanik.
- **AJ:** Zer esanik ez, orain berriz? Bai, Mari Batista, bai. Hau ezta hasieria besterik. Eskribauakgure papelak egin orduko zer esan haundixak emungo dosku gaur hasi dogun autuak. Gaiñera gure Joanesek ondo jakin, ondo ikusi eta ondo neurtu gura izaten dittu seme-alaben gorabeherako gauzak. Ni naiz Zabaletako etxekoandria, baiña nere senarra betik etxeko jaun, eta berari dagokixo Zabaletako gauza danak erabagittia.
- **MB:** Ba, Joanesek, zentzunezko gizona da eta milla dukat emungo xau semiari.
- **AJ:** Berriz be? Ondo goguan hartu dozu zeure eskabidia; baiña alperrik zabiltz neria ahazketan baxatzu!
- **MB:** Guk ahal dogun adiña, ahal dogun dana emungo xangu, horra.
- **AJ:** Eztago gaizki esana. Zer meza entzungo dozu datorren domekan?
- **MB:** Zortziretakua nik.
- **AJ:** Hemen izango naiz, ba, ni be, Jaungoikuak gura badau, eta agur. Domeka arte!
- **MB:** Agur

Andratxo bixak pentsamentu batekin alde egin euen: egun hartan hasi euen gaixari akabera on bat zela emungo otsain.

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.

BERBATEGIXA:

Jaztetxe, -ia: Baserriko jentia erropak aldaketako kalia izaten euen etxia.

Maratz, -a: Fiña, langillia.

Iñaurkin, -ña: Ganaduen azpizak egitteko ebalten dan gauzia. (orbela, iria, bedar igarra...)

Autu, -a: Gaixa, asuntua.



Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ARANBURU
ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

AGENDA

ERAKUSKETAK

URRIAK 13tik 17ra

'GIPUZKOA PERSPEKTIBAN: XVII ETA XX. MENDEKO PLANO ETA MARRAZKIAK

Gipuzkoako bilakaera erakusten duten plano eta marrazkiak. Oñatiko Artxibo Historiko Probintzian

HITZALDI-SOLASALDIAK

URRIAK 7 / 17:00

'Gurasoen arteko erantzukidetasuna lortzeko gakoak'

Hizlaria: Nahia Alkorta. Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, herritar guztiei irekia. [San Juan kale 5ean](#).

URRIAK 14 / 18:00

Iban Zaldua eta Julen Ribas idazleekin berbetan

Elkarrekin idatzi dituzten 'Botere handi batek' eta 'Azken garaipena' komikien inguruan. [Udal liburutegian](#).

URRIAK 16 / 18:00

'Sare sozialen arriskuak eta aukerak'

Hizlaria: Telmo Lazkano. Oñati Institutuko Guraso Elkarteak antolatuta, LH eta DBHko guraso eta hezitzaileei zuzendua. [Oñati BHI-ko aretoan](#).

IKASTARO ETA TAILERRAK

URRIAN hasita

SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA

Sukaldaritza makrobiotikoa eta elikadura beganoari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Larunbat edo igandeetan, hilean saio bat. Informazioa eta izen-ematea: 658719089 / www.macrosano.com.

URRIAK 17 / Goiz eta arratsalde

'100 ALDIZ BEGIRATU'

Bideko ezbeharrak prebenitzeko tailerra adineko pertsonentzat. Jarduerak Foruen plazan (11:00-14:00 / 16:30-19:30) eta saio partehartzailea + umorezko bakarriketa Santa Ana antzokian 17:00etan hasita.

URRIAK 17-18-19

'AUTOZINE', Argazkilaritza ikastaroa

Ilunpetan Argazki taldeak antolatuta, Ricardo Cases argazkilaria eskutik. Izen-ematea ilunpetan@gamil.com, urriaren 14ra arte. [Eltzia](#)



'ELARA. Bidaia bat izarretara'

Haurrentzako antzerkia

Mar Mar Teatro taldearen eskutik, Leire Bilbaoren gidoian oinarritutako 'Elara. Bidaia bat izarretara' antzezlanak ikusi ahal izango dugu **urriaren 19an**, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Elarak goizegi ezagutuko du galera hitzaren esanahia. Bere gertuko bat izarren hauts bihurtuko da. Planetak eta galaxiak zeharkatuz bidaia espazial bezain espeziala egingo du bizitzaren zentzua ulertu nahian. Horretarako, doluaren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar baditu ere.

Margo lehiaketako lanak ikusgai



Irailaren 21ean egin zen XX. Oñatiko Aire Libreko Margo Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude kultur etxean urriaren 10era arte. Nagusien mailan (+16 urte) Iker Martinezek irabazi zuen lehen saria (800€), Alipio Ruanok bigarrena (500€) eta Esteban Orozek hirugarrena (400€). Lehen oñatiarraren saria (300€) Xanti Ugartek eraman zuen. Gaztetxoaren artean, Bernat Gonzalez (100€), Ekihotz Erroiza (60€) eta Lur Alberdientzat (30€) izan ziren.



URRIAK 18TIK AURRERA

HAZKUNTZA PERTSONALA

Hazkuntza pertsonaleko (Crecimiento personal) tailerra. Nolakoa zaren jakiteko. Kontzientzia hartzeko. Konfort gunetik irteteko. Oraina bizitzako. Hilean larunbat bat (9:00-13:00), Maite eta Lourdesen eskutik. Izena emateko: 658719086 / lourdescid1@hotmail.com. [Eltzia-Lagun Leku](#)

URRIAREN 25etik AURRERA

FAMILIA-KONSTELAZIOAK

Eltzian egoitza duen 'Hartez Hezten' (Creciendo con arte) taldeak antolatuta. Erreserbatu zure tokia: 628212839. [Eltzia](#)

LIBURU AURKEZPENAK

URRIAK 15 / 18:00

'Iñaki bota daue'

Pako Aristik eta Gure Bazterrak elkarteak

argitaratu duten ikerketa lana aurkeztuko dute. [Kultur etxean](#).

URRIAK 17 / 19:00

'Bestaldetik etorriak'

Josefe Diaz de Tuestak 19 herritarren testigantzekin osatu duen argazki-liburuaren aurkezpena. [Kultur etxean](#).

IPUIN KONTAKETA

URRIAK 30 / 18:00

'MAMUKI' LANTEGIA

Ipuin kontaketa eta kareta tailerra +6 urteko haurrentzat. [Haur liburutegian](#)

KONTZERTUAK

URRIAK 19 / 12:30

OLAIA INZIARTE

Abeslari nafarraren matinee kontzertua. [Verdury Hall-Gaztelekua](#)



Eskulan ikastaroetan izena emateko epea urriaren 9tik 19ra

Udaleko Kultura sailak antolatzen dituen eskulan ikastaroetan (Pintura, Zeramika eta Eskulan dekoratiboak) izena emateko epea urriaren 9tik 19ra irekiko da, www.onati.eus webgunean jarriko den formularioa betez, edo aurrez aurre, kultur etxean (astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 / 16:30-20:30).



Adimen artifiziala hizpide

'Adimen artifizialaren perspektibak enpresan, enpleguan eta adiminezazioan'. Horixe da **urriaren 21ean** kultur etxean (18:30) egongo den hitzaldiaren izenburua. Telekomunikazioetako ingeneria eta adimen artifizialean aditua den Juan Corro Beseler izango da hizlaria, eta ondorengo solasaldian Iker Azpeitiak (EHU) eta Manu Egañak (HINE Group) parte hartuko dute.

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Urriak 9 - 13

ZINE KLUBA:

AQUEL VERANO DE PARIS (VOSE)

NAGUSIAK:

MASPALOMAS (*)

GAZTETXOAK:

SUPER ELFKINAK

(*) Emanaldi bereziak ostirala (19:30), igandea eta astelehena (22:00) Astelehenean (19:30) Aitor Arregi egongo da.



Urriak 16 - 20

ZINE KLUBA:

SIRAT - TRANCE EN EL DESIERTO

NAGUSIAK:

EL CAUTIVO

GAZTETXOAK:

LOS FUTBOLISIMOS

2. EL MISTERIO DEL TESORO PIRATA



Urriak 23 - 27

ZINE KLUBA:

MI POSTRE FAVORITO (VOSE)

NAGUSIAK:

KARMELE (*)

GAZTETXOAK:

SABLE HORZ

KAPITAINA

(*) Emanaldi berezia astelehenean (22:00)



Urriak 30 - Azaroak 3

ZINE KLUBA:

TRES KILOMETROS AL FIN DEL MUNDO (VOSE)

NAGUSIAK:

Zehazteke

GAZTETXOAK:

Zehazteke



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Urriak 1, 2, 10, 11, 112, 20, 21, 29 eta 30. Azaroak 7, 8 eta 9.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Urriak 3, 13, 14, 22, 23 eta 31. Azaroak 1 eta 2.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Urriak 4, 5, 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26. Azaroak 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Urriak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28. Azaroak 5 eta 6.

ODOL ATERALDIA

URRIAK 17 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odol emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

UMEAK ZAINDU Oñatiko neska, arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko prest, eta adineko pertsonen konpainia egiteko eta paseora ateratzeko prest. Interesatuak deitu: 695 738 795

BASERRIA erosi edo alokatu nahiko nuke: 620 710 109.

SITSA OPARI Ardi sitsa doan eskaintzan da Gomiztegi baserrian. Norberak joan behar du jasotzera 688 689 725.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

A photograph of a mountain trail with many hikers. In the foreground, a hiker with a blue backpack and trekking poles is seen from behind. The trail winds through a green, rocky landscape under a hazy sky. A decorative graphic of white concentric lines is in the top right corner.

elkarrekin bidea eginez

ULMA, 2025EKO OÑATIKO MENDI
MARTXAREN BABESLE NAGUSIA

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

